

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XIX Zenbakia.

1992

Jorrailla-Ekainilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Etxeko goraberak (25 urte).— (Barruko azalean).	
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran. Latiegi'tar Bixente	1
Tierno-Kabri.— Arrinda'tar Anes	9
Erdal-eragiña gure aditzetan.— Euskerazaintza	14
Goi Yakintzaruntz. Oarmena.— Ur'estarazular Andoni	16
Eusko Foklore aleak.— Goikoetxea'tar Iñaki	19
Euskalerria.— Benigno Madina	23
Orrazkerari buruz.— J.M. Azpiri	24
Euskeraren auzia mendeetan barna.— Umandi	27
Oñarrizko itzen arduetan.— Jesús Iribarren.....	29
Líburu barriak.— Aita Onaindia	31
Don Jose Miel Barandiaran garai bateko oroitzapenak.— Arrinda'tar Anes ..	35
Euskal abostegia eta onen oguzkatzea Mungialde, Bermeo ta Ondarroa'n ...	43
Olazar'tar Martin Jaunaren itzaldia'ri erantzuna.— Latiegi'tar Bixente	61
Erri-Euskera zaintzen eta indartzen.— (Barruko azalean)	
Erri-Euskera zaintzen eta indartzen.— (Azalean).	

ZuzenbIdeak®

CET: MIA 21 - DONOSTIA

C. LARREAT: G114 S'ILBAO

ETXEKO GORABERAK (25 URTE)

Aurten beteko dira 25 urte BILBAO'KO EUSKERAZALEAK sortu zala.

Ezin ukatu Bizkalirako EUSKERAZALEAK Alkarte ongarri eta langillea izan danik.

Zoritxarrez bizkaitarrentzat ezin lei esan Bilbao euskal kabi danik, baiña EUSKERAZALEAK alegindu izan da euskerari eutsi eta euskaldun barriak egi-ten, zarata eta ots andi barik, baiña etenbako lan ixil eta onuratsu bidez.

Sortu zanetiko 25 garren urtea ospatzeko EUSKAL ASTE berezi bat eratu dau.

Asteko jaiak, batez be itzaldiak izango dira.

Itzaldi oneik Eskolapjoetako Ikastetxeko aula baten ospatuko dira. Bagilla'-ren 15'ean asi eta 19'ra.

Itzaldi guztiak ordu bardiñean izango dira; Arratsaldeko zortziretan.

izlariak eta gaiak oneik izango dira:

15.- (Astelena) Izlari: Etxenagusia tar Karmelo.

Gaia: EUSKERAZALEAK alkarteko langille ospetsuak.

16.- (Asteartea) Izlari: Berrojalbizitar Julia.

Gaia: Euskerea Bilbao'n.

17.- (Eguastena) Izlarj: Olazar'tar Martin.

Gaia: Alkartearen argitalpenak.

18. (Eguena) Izlari: Zubikarai tar Augustin.

Gaia: Euskal egutegiak.

19.- (Barjua) Izlari: Zubiri tar lñaki.

Gaia: Alkartearen ekintzak.

Ospakizuneko Jai andia: 20'an izango da. Amabi ta erdietan meza eskeiñi-ko da San Anton parrokian alkarteko il eta bizien alde.

Eguerdiko ordu bietan, Bazkarja, jatetxe jator baten (Dei-txartela eskatu bear da).


Uste da bilbotar euskalzale ugarik esku artuko dabela bai itzaldietan eta bai anaitasuneko bazkarian.

EUSKERAZAINTZA

ISSM - 1132 - 1318.

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87.

Konponketa: Flash Composition, Bilbao.



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

(871'ean Araba'ko larruki Bat)
(Jarraipena)

Giza-izenak bakarrik gelditzen zaizkigu aztertzeke Larruki ontako izen guztien artean; eta, esa genduan bezala, nerri, larruki onen giza-izen oiek toki-izenak baiño jakingarriagoak dirala iduritzen zait; giza-izen oietatik asko, zerao euskaldunak bait dira, naiz, larruki guztia lateraz idatzia izan zalako, izen oiek later-itxuraz jantzirik etorri.

Izen oiek gizakumeen izenak nola izan daitezkean ulertzeko, oartxo bat egin nai nuke, beren azterketa-lana asi aurretik: Izen oiek, izenak baiño geiago, abizenak dirala, alegia; etxe, eta, agian jauregien izenak; larruki ontan agertzen diran gizakumeak jende aberatsak zirala bait dirudi. Euskaldunen artean oitura zarra da bá, edozeinei bere etxearen izenez dei egitea.

Ona bá, larruki zaar onek eskeintzen dizkigun giza-izenak:

ARROÑCIUS.— Arrontius edo Arrontzio au, larrukia idatzierazi zutenetako bat dugu. Beste guztien "asaba" edo "patriarka", itxuraz beintzat: "Ego senior Arroncius et filius meus Tellus et dompno Bivere episcopo et dompno Petro abba de Ocoizta et dompno Alaquide presbiter et dompno Vitulus meo subriño et dompna Obtavia mater de dompno Bivere episcopo, et filiis nostris, nos omnes placuit una concordia cum firmitate et talentum pro remissione peccatorum nostrorum...".

Apaiz jaunek oartuko ziranez, oso latera baldarrean idatzia dago aapaldi ori, nominatibo eta genitibo-erak alkarrekin nastuz. Izen oiek danak genitibo-eran egon bear lukete, "placuit" aditzak ori agintzen dualako, eta era ortan itzuliko ditut nik:

"Ñeri, Arrontzio jaunari, Tello nere semeari, Bibere gotzai jaunari, Kepa Okoizta'ko abata jaunari, Alakide bereter jaunari, Bitulo nere illoba jaunari, andre Obtavia Bibere gotzai jaunaren amari, eta gure semeei, bat egiñik, benetan eta zer egiten dugun oarturik, danoi izan zaigu atsegiña, gure obenen barkapenerako...".

Eta ondorean Okoizta'ka Donebixente'ren lekaidetxeari egiten dizkoten en emaitzen zerrenda dator. Ez nolanaiko emaitzak, alajaiña!

Arroncius ez da laterazko izena, naiz lateraz idatzitako larruki ontan lateraturik nominatibo-eran agertu. Ez da izen kristaua ere, orrelako Donerik ez bait

da. Donetegietan ez dator beintzat; ez Arroncius bezala, ez Arrontius, ez Arontius, ez Aroncius bezala. ARROÑ eta AROÑ izkiez asten dan Done-izenik ez zait iñon agertu.

Euskal-izena dugu beraz izentxo ori. Abizena seguruaski, eta abizena baiño len, etxe baten izena. Esan dugun lez, oiturazkoa izan bait da gure artean, jendeari bere etxearen izenaz deitzea.

Zer ote dugu, etimologiz Arrontzio zaar ori. "Ar" zer dan badakigu. "Ontzi" zer dan ere bai. Eta, "O", atzizki ugaritasun-adierazlea dala, nork ez daki?

Bapo! izenkiak zer diran badakigu. Baiñan izenki oiek alkartuta sortzen zai-gun izenak, ez dit atsegin geiegirik ematen: AR-Ontzi-O, "Lugar de Vasijas de Piedra"? Ez dakit bá...! Etimologi errezegia gertatzen zait.

Ori ordea, Arrontzio'ren etimologia ezagutzera iristeko bide bat besterik ez da, eta ez egokiena, nere ustez. Bai bait da beste bat, askoz zugarra.

Bi zati nabarmen ditu larrukiak damaigun ARROÑCIUS orrek: Euskalduna bata, "ARROÑ". Eta laterazkoa bestea, "CIUS".

Euskalduna dan zatiak berak ere bi atal ditu: "AR" (arria): eta "OÑ", ("OÑA" nominatibo-eran), toki-ta-ugaritasun-adierazlea dan atzizki ezaguna.

Beraz, ARROÑ, nominatibo-eran ARROÑA, "leku arritsua" dugu. "Pedregal", gazteleraz.

"CIUS", edo, obeto, "TIUS", laterak giza-izenak tajutzeko eundaka eta eundaka erabilli zuan atzizkia da. Laurentius, Fulgentius, Ignatius, Gaudentius, Tiburtius, Venantius, Vincentius..., eta zenbat eta zenbat olako!

Ontara ezker, gure elburura iritxiak gerala deritzait:

Larruki ontan agertzen dan sendiaren "asaba" arek, ARROÑ zuan agian izena, ARROÑA nominatibo-eran. Ta, ARROÑ ori laterara biurtzerakoan ARROÑ-TIUS idatzi zigun lumalari ark, lateraren araurik jatorrenetako bat zintzo betez.

Gaur Araba'n bada, Kerexeta'k dionez, Arrontzio'ren antza aundia duan abizen pitx; bat: ARROÑTZE. Abidez onen amaierako "tze" ori, toki-adierazle baiño geiago ugaritasun-adierazle dan "on" atzizkiari indar-ematera datorkion atzizki toki-adierazle bat da.

Ortaz, gau-egungo Arrontze'tarrak bezala, bera ere arabarra zan Jaun aren izena ARROÑTZE izatea ere badaitekean gauza da.

TELLUS.-Larruki ontan agertzen da aurreneko aldiz izen au. "Arroncius" bezala, ez da au ere izen kristaua. Izen ortako Donerik ez duzu beintzat Elizaren Donetegietan aurkituko. Kerexeta'k abizen galziarra dala dio, baiñan Garcia Carraffa'k ez du aipatu ere egiten. Ez da itxuraz beintzat izen euskalduna. Baiñan emen bertan sortua dala esango nuke nik, gure dokumentuetan maiz agertzen bait da; bai izen bezala, Tello, bai abizen bezala ere: Tellez. Tellez, euskeraz; Tellorena, izango litzake.

García Carraffa'k, Labairu'gandik jasota, Tellitu Enkarterrietako abizena dala diosku; baiñan nik ez nuke esango Tellitu orrek Tello'rekin zer ikusirik baduanik. Baiñan ez nuke ukatu ere egingo.

BIVERE. Gotzai baten izena. Ez da au ere izen kristaua, ez bait da Donetegietan BIB edo BIV izkiez asten dan Donerik ikusten. Geeroago bai, Viventius izeneko Done bi aurkitzen dira Erroma'ko Elizaren donetegian, baiñan biak XII mendekoak diralarik, ez digute IX mendekoa dan larruki ontarako balio.

Bibere izen euskalduna dala, esango nuke nik.

Egia da larrukiak dionez, Asturietatik etorritako jandearen oiñordekoa dugula izen ori zeramakian gotzai ura: Entzun larrukiar:

"Offerimus et donamus ad honorem sancti Vincenti de Ocoizta et tibi abba domno Petro, ecclesias Sancta Gratia et Sancti Martini, in villa Stabellu... cum terminos et pertinentia et cun terris, vineis, ortos, lineas, ferragines, pomares, ad integritate, quia istas erencias de nosotros avus habemus qui de Legione venerunt ibi":

Euskeraz:

"Zuri, Kepa abata jauna, eskeintzen eta ematen dizkizugu Okoizta'ko Donobixente'ren omenez, Stabellu uriko Donegrazi'ren eta Donematiñ'en elizak beren jabetasuneko lur-mugen barruan duten guztiarekin, alor, masti, baratz, lierri, larre gizen, eta zitu-zugaitz guztiekin. Ondare oiek Leon'dik onera etorri ziran gure aitongandik artuak bai ditugu".

Stabellu ori, gaur Estabillo deritza, eta Trebiño'ko Konterriaren eoan Gazteiz'tik ogeirenbat kilometrora dago. Euskaldun-euskalduna zan orduan. Oso osoan euskalduna.

Euskalerria etorri ziran Leon'dik Bibere gotzaiaren aitona. Zerk eraginda? Ez dakigu. Baiñan, bai, badakigu oso zakarrak zirala garai aietan euskotarren eta asturiarren arteko arremanak. Altagutziz, Asturietatik (Asturi'koa bait zan Leon), Euskalerria etorri ziran jende aiek! Zergaitik? Euskaldunak ziralako!, ezpairik gabe.

Zergaitik ainzuzen, zearo euskalduna zan eta Stabellu zeritzan erriska txiki artara? Izatez bertakoak ziralako. Eta Asturietara Stabellu'tik joan ziralako. Ori adierazten bait digu aitona aiek Stabellu'n ainbeste aberastasunen jabe izateak!

Zerzalata joan ziran Stabellu'tik Asturietara? Ez dugu ortaz usmorik ere.

Bisigotak, euskotarren etsai gogorak izan ziran beti, eta ala jarraitu zuten, arabitarren eragiñez Asturietako lur menditsuetara mugaturik gelditu ziranean ere. "Domuit Vascones", "menderatu zituan euskotarrak" izaten zan edestilari bisigotek Españi'ko errege bisigoten omenez idatzi oi zuten goratzarrerik aundiena: "Domuit Vascones".

Ori bera izan zan Asturietako errege bisigoten guraririk aundiena ere: Euskotarrak menderatzea. Ez auek, asturitarrek, ez aiek, bisigotek, sekulan lortu ez zuten gauza.

Orregaitik, orduango Euzkadi'ren sarkaldean euskotarrentzat, ots arabarrentzat, etsaierik gogorrenak egoaldetiko arabiarrek ala Asutiaetatiko bisigotak izan ziran jakitea, ez zaizu erreza gertatuko. Etsai gaiztoa izan bait da Españi Euzkadi' rentzat beti.

Borrokaldi oietako batean katigu arturik, Asturietara eramanak izan ote ziran Bibere gotzaiaren "aitona" aiek?

759'aren inguruan, Fruela erregeak eraso zio Araba'ri, eta gero emazte egin zuan Munia edo Muña, "vasconum puella" edo "neskatil euskotarra", eraman zuan, iges egitean, berekin katigu.

Fruela, orduan Araba'renak ziran Bureba'n eta Sarkaldeko Errioxan'n ibilli zan arrapalari. Ibero ibaiaren inguruetan. Stabellu ez zegoan andik urrutsi. Stabellu ortakoa ote zan Muña neskatilla, eta arekin joan ote ziran Bibere gotzaiaren aitona?

Geroago ote? Fruela eta Muña'ren semea, II Albontsa, Mauregato iraultzaria-rengandik igesi, "oso ongi artu zuten bere amaren aideengana" igesi etorri bait zan, gero ostera Asturietara errege biurtzeko. II Albontsa'rekin joan ote ziran?

Eta, etorri? Noiz etorri ote ziran? I Ordoño'ren denboran? 850'etik 866'era 1 Ordoño Muña euskaldunaren billoba Obiedo'n errege izan zanean, arabitarrek iñoiz baiño gogorrago jotzen zutelako, izan zan urte oietan arabarren eta asturiarren artean pake ta laguntza-aro sendo bat.

I Ordoño illik, bere semeak, III Albontsa'k artu zuan erregetza. Eta au ere bere aitona bezala, irultzatik igesi. "Bere amaren aldetiko aideengana" etorri-bearrean aurkitu zan. Berekin etorri ote ziran 866'ean gure Bibere gotzaiaren sendikoak?

Danadala, bost urte geroago, 871'ean, Stabellu'n ditugu gure Bibere au, eta sendi osoaren Asaba dala dirudian Arrontzio.

Nongo gotzaia izan ote zan Bibere? Iñork argitu ez duan gauza. Armenti' ko gotzaia ez da. Armenti'ko lenen gotzaia, —dokumentuen bidez ezagutzen dugun lenen gotzaia—, sei urte geroagokoa bait da: Albaro; 877'koa. Orregaitik, "Araba'ko gotzaia" esan oi zaio gure Bibere oni.

Izena, nere ustez euskalduna duala esan dut. Ez naiz ordea bere etimologia usmatzeko ere gauza. Ea zuk, irakurle, korapilloa askatzen didazun. Baiñan, arren, ez bezait iñork esan izen ori lateratik datorrela. "V"z idatzita, "Vivere" itzak lateraz "Bizitzea" esan nai du. Balio ez digun etimologia. Itxura ortako Izenik ez bait zitzaion iñori ipintzen. "B"z idatzia berriz, "Bibere" "edatea" izango litzake. Ipintzen ez zan izena izateaz gaiñera, gotzai batentzat oso egokia iduritzen ez zaidan izena.

ALAUQUIDE.— "Dompno ALauquide, presbiter". "Alakide jauna, presbiteroa", euskal izen zarrez, "bereterra". Au ere, kristaua ez dan izena dugu. Santutegietan beintzat ez dut orrelako izenik aurkitu. Ez "L"z, ez "LL"z, ez "Q"z, ez "K"z.

Izen bisigota ote da? Ez. Ez bait da agertzen bisigoten santutegian ere.

Euskalduna dugu beraz izen au ere. Zer esan nai duan ez dakit. Badakit "kide" berdintasuna adierazten duan atzizkia dala, baiñan "ala" zer dan ez dakit. "R" maiz "L" biurtzen dala ere badakit. "Araba" - "Alaba", adibidez, urrutirago joaten ibilli gabe. Nik orrelako izetan "R" daramakitenak "L" daramakitenak baiño zarragoak dirala esango nuke. Orrela, XIV mendeko larruki batean, Aramaiona eta Lenitz'en arteko mugak egiztatzekoan, bein baiño geiagotan, "Arbina" esaten zaio Aramaiona'ko errekatxo bati. Gaur, 'Albina" esaten diote danek, Gazteiz'eri edate-ura ematen dion errekatxo orri.

Orrela, gure larruki ontako Alauquide ura, leenago Arakide izatea ba'leikean gauza da. Orrela ba'litz, "Arakide" aren izenik kidekoena "Arakil" izango genduke orain, Naparroa'ko aran baten izena.

Baiñan ez bait dirudi "R" "L" baiño zarragoa dalako arau orrek izen eta itz guztientzat balio duanik, gure Alakide, beti Alakide izan izatea baleikean gauza dugu. Onela izatekotan ALAKIDE'ren kideko izena, gaur, ALAPIDE izango litzake; Kerexeta'k dioskunez, Arjentina'n oraindik bizirik jarraitzen duan euskal-abizena.

Etimologia? Ni ez naiz bat ematera ausartzen' bai "ARA" eta bai "ALA" euskeraren "antziñitz" edo "arkaismo" bi dirala iduritzen bait zait. Bere zentzua galduta iritxi zaizkigun antziñitzak.

Kerexeta'ren ustez, "ALA", "Iarre" ornen dugu, gazteleraz, "pasto". Beraz "Ala-pide", "Larre-bide" izango genduke, "B" errez biurtzen bait da "P".

Eta, "ARA" berriz, "ala"ren edo "ira"ren aldakuntza ornen da; eta "KIL", atzizki toki-adierazlea. Beraz, "Ara-kil", "Iarre-toki" edo "ira-toki" ornen dugu.

Danadala, Alakide, "amargarren mendean eusko-erreñuan erabiltzen zan giza-izana dala", "Enciclopedia General del País Vasco" k diosku. Amargarren mendean? Baita bederatzigarrenean ere, erantzun genezaioke guk 871' ko larrukia eskuetan dugula.

VITULUS.- "...et dompno Vitulus, meo subrino". "Eta Vítulus jauna, nere illoba". Ona emen beste euskal-izen bat. Laterara biurtua. Baiñan izen ortako DOne-rik ez dalako, ez dugu au ere izen kristaua. Vitus, bai. Vitus edo Bito Donean, IV mendean asieran Diokleziano'ren ziogorpean Itali'n eraildako martiri baten izena da. Vitulus, lateraz Bito Txiki, izango litzake. Baiño ez du gure Viturulus'entzat balio, ez bait zitzaion emen iñori bere izenik diminutitibo edo ttipi-eran ipintzen.

Alderantziz, euskaldunek, beren buruei abere-izenak ipintzeko izan zuten zaletasuna, ongi ezagunak zaizkigu: Bela, aitak, Belasko, semeak; Otxoa, aitak, Otxoa, semeak...

Vitulus, lateraz, "aberekume" da; bereiziki, bei-kume arra. Larrukiak Vitulus bezala aurkezten digun Arrontzio'ren illoba onen izena, euskeraz Aretxe, Zekor, Zezenko, edo orrelako zerbait ote zan?

PETRO eta OBTAVIA. Izen auetan zer esanik ez dugu, euskaldunak ez dirala agirian dagoan gauza bait da.

Kepa, Okoizta'ko Donbexiente'ren lekaidetxeko abata zan, lekaide etxe aren izenean larruki onek aipatzen dituan emaitzak jaso zituana: "Dompno Petro abba de Ocoizta".

Oso goiz sartu zan Kepa deunaren eraspina gure asaben artera; Euskalerriko dokumenturik zarrenean ere, 759'an, Mikel Deunaren lekaimetxeko lekaimetxeko buruzko larrukian ere agertzen bait da. Ez da arritzekoa, Kepa Donea elizaren lenengo Aitasantua izanik!

Obtavia, Bibere gotzaiaren ama izan zan: "Dompna Obtavia, mater de dompno Bivere episcopo". Octavius eta Octavia, jende askoren izenak izan ziran erromatekoan. Altagutziz, Octavius edo Octavia izeneko Donerik ez da lenen lau mendeetako Doneen artean. Askoz gutxiago "B"z idatzitako Obtavius edo Obtavia'rik.

Orrek zer esan nai duan? Doneenak ez ziran izenak Euskalerrian errez eta sari ipintzen zirala oraindik, IX mendeko kristauen artean.

Bai. Octavius izeneko Done bat izan zan; italiarra, baiñan aski berandukoa gure Obtavia onen izen-iturri izateko: VI mendekoa.

Eta Arrontzio asabaren sendiko jendearen izenen atzetik, larruki onen idazketarakoan "lekuko" edo "testes" izandako lau bereter edo presbiteroen izenak ipiñi zituan gure lumalari ark: "Domno lohanes, domno Munnio, domno Ildemiro et domno Nunnio presbiteres testes".

(Orain arte "dompno" idatzi du beti, gure lumalariak, "Jauna" itzaren laburpena. Orain "domno" ipiñiko du lau apaiz auen izenaren aurrean, gero ostera "dompno"rekin jarraitzeko. Garai artako idazleen gauzatxoak!)

Lau izen oietatik iru bakarrik zaizkigu ajolagarri: Munnio, Ildemiro, eta Nunnio.

MUNNIO eta NUNNIO. Muño eta Muño, gure agoskeran. Antziñako aiek "nni" ori "ñ" agoskatzen bait zituzten. Izen auek ere, jatorriz euskaldunak ditugu, naiz gero, Gartzia bezala, Euzkadi'tik at ere asko zabalduak izan.

Larruki ontan agertzen dira beste iñon baiño leenago.

Izen bat bera ote dira? Bata bestearen antza aundikoak dira beintzat: bai idazkeraz, Munnio eta Nunnio; eta bai agoskeraz ere: Muño era Nuño.

MUNNIO, Muño, oso izen zarra da Eskalerrian. Zarrenetakoa, dokumentuei dagokienez beintzat. Gure larrukirik zaarrena VIII mendekoa da: 759'ko Jorraiñaren 24'ekoa. Larruki ortan Mikel Deunaren lekaimetxeko lekaiume euskaldunen izenak agertzen zaizkigu.

Bá, lekaiume aietako batek Muñoza ("Munnoza") zuan izen, Moña ("Monnia") beste bate, eta Muñata ("Munnata") beste irugarren batek. Izen oiek danak, "Muño"ren emaketak dira. Eta baleike ori bera izatea laugarren lekaiume baten izena ere: Mumadonna. Ez bait litzake arrigarria izango "M" ori bi "N" izatea: Munnadonna. Agoskeraz, Muñadoña: zentzuz "Muña Andrea".

Oroi, MUÑA zala urte ortan bertan edo agian lentxeago Fruela'k Araba'n arrapatutako "neskatil euskaldun" aren izena: MUNIA.

"Muño", "menditxo" dala, edonork badakian gauza da. Oso ugaria, gure toki-izen eta abizenetan: Muñoz (Muño-tz. "Tz" ori ugaritasun adierazle bat da), Muñoa, Muñuzuri (Muño-zuri? ala Muñoz-uri? Izen ori daraman tokiari begiratu bearko, zer dan jakin aal izateko).

Muñagorri, nere neronen irugarren abizena da. "margo gorriko muñoa"? Ez dut uste. Nik. "muño malkartsua", "latza", "antzua", dala esango nuke: "colina, ruda, áspera, seca", gazteleraz. "Larre gorria" ere esaten bait da zentzu ortan, gaur-egun oraindik. "Muño" itza gune dutela eraturako izenak dira beste auek ere: Muñata, Igeramuño, Aramuno, Unamuno, eta, agian, baita Mundo eta Amundo berberak ere: ("Muño-ondo", "A" edergaillu batekin).

NUNNIO edo Muño ere ez da gure artean atzo goizeko giza-izena. Bai izen bezala NUÑO bai abizen bezala NUÑEZ ugari agertzen bait da gure larrukietan. Ainzuzen, 871 ontakoan aurreneko aldiz.

NUIN naparroa'ko toki-izen eta abizen bat da. López Mendizabal'en ustez, "N" edergaillu, "I"ren aldakuntza ornen dan, eta "junco" esan nai ornen duan "U"z, eta toki-adierazle dan "IN" atzizkiz eraturako izena. "Juncal" gazteleraz. Ez dakit bá...

Danadala, NUIN itzari "O" atzizki ugaritasun adierazlea alkartzen ba'zaio, NUIN-O, ateratzen zaigu. Bá orrela idsatzitako itz ori, NUINO, erdiaro zarreko jende aiek NUÑO irakurtzen zuten. Eta bizen bezala NUINEZ idatzzia berriz, NUÑEZ.

ILDEMIRUS.- Ez da esan bearrik izango, au ez dugula euskal izena. Baiñan ez da izen kristaua ere, naiz "ILDE"z asten diran Doneak ugari izan, Ildemiro bat ez bait da guzti aien artean. Ezta, "H"z idatzitako Hildemiro'rik ere.

Izena bisigota da. Au, ainzuzen, larruki ontako izen guztien artean izen bisigota bakarra. Eta au ere Asturietako bisigoten artetik ekarria. Alare, izen au

bisigota izateak ez du esan nai izen ori zeramakian apaiz jaun ura bisigota zanik. Nik daramatan izena ere ez da euskalduna, erromatarra baizik. Ni, ordea, ez nai erromatarra.

Ildemiro'ren itxurarik aundieneko izena, Ildemaro aurkitu dut amabi liburu aundiko "Bibliotheca Sanctorum" deritzan iztegi ederrean. Baiñan XI mendekoa zalarik ez digu balio berreun urte leenago IX'ean bizitu zan Ildemiro onentzat. Gaiñera, beste ura, ez zan Donea izatera iritxi; "beato" edo zoriotsu utsean gelditu zan.

Eta apaiz jaunen atzetik, beste lau "testes" edo lekuko enizenak datozkigu. Lauek anaiak dira, eta jende arruntak eskierki. Ez bait die auei lumalariak "jaun" esaten: "Et Marcellinus, et Paternus, et Severinus et Emulatus fratres hik tests". Bai, irakurle; "testes" bear luke, baiñan idazle zar eiei ez zitzaien orrelako pittinkeriengaitik axolik).

Lau izen oietan bi zaizkigu azterketagarri: Paternus eta Emulatus. Beste biak Done ongi ezagutuen izenak bait dira.

PATERENUS.- Lau Done baditugu aldareetan, izen ortakoak. Zarrena, III mendean Erroma'ra Donekepa'ren illobira erromes zijoala, Itali'n martiri eraildako kartagotarra.

Bada ordea beste Paternus bat, VI Mendekoa, orduango Euskalerrriaren muga-ondoan jaio zalako, guretzat askoz ajolagarriagoa: Lekaidea, eta berak bere buruari esaten zion lez, "peregrinus pro Christo", "Kristo'ren omenez erromesa", Poitiers'en 480'aren inguruan jaioa.

Barka eIdazu, irakurle, idazketa legor au zerbait goxatzeko, aren kondairak damaigun gertakizun xalo bat emen oroitzea.

Skubillion zeritzan lagun batekin ibiltzen ornen zan Paterno salmoak abes-tuz bidez-bide. Eta orrela, bein batean, jentillek beren sasijainkoen jaia ospatzen ari ziran uri batera iritxi ornen ziran...

Ikus orain, agian edeskia ez baiña kondaira utsa dan gertakizun ori:

"Impudica et sine fronte mulier, ut eos pudore afficeret, elatis a tergo vestimentis, posteriora illis sua monstravit. Quod impune non tulit Deus, quia nates eius ulceribus innumeris putruerunt, que sanad non potuerunt, nisi patita a servis Dei venia".

Euskeraz:

"Lotsarik eta zentzurik gabeko emakume batek, gizaseme aiek lotsatzeko, soiñekoa atzeko aldetik jasoz, atze-alde artako larrua erakutsi zien. Ez zuan ori Jainkoak zigorrik gabe laga. Bertan usteldu bait ziran emakumezko aren ipurt-masaillak, zenbatu-ezin-aiñako zorne-zauriz. Ta zauriok, Jainkoaren morroi aiek emakume aren alde barkapena eskatu zuetenean bakarrik sendatu ziran".

Poitiers, ez dago Dordoña'tik urruti. Eta Dordoña, orduan, Euskalerrri zan. Sinistekoa da beraz Paternus bere erromes-ibilketa ugariaren ondorioz, bein baiño geiagotan Euskalerrri ere iritxiko zala. Euskalduna ote zan, dordoñatarra agian, emakumezko ipur-erakusle lotsagabe ura?

Euskalerrriaren auzukoa zan Paternus Done aren izena ote zeraman gure larrukiko Paternus onek? Tolosa eta Tours'ekin batera, Poitiers izan bait zan aro artan kristautasun-zabalketaren iturrietako bat.

Alaz ere, eta arazoari beste alderdi batetik begiratzuz, euskaldunek izan dutela dirudi, beren buruei aidetasuna agertzen duten izenak ipintzeko oitura. "Osaba", gaur oraindik abizen ugaria de Araba'n. 759'ko lekaiame aietako bat "Amoña" ("Amunna") zeritzan. Eta "Moña" ("Monnia") zeritzan beste aren egiazko izena Amoña izatea ere baleike.

"Aitana" zuan berriz XI mendean izena, V Gartzia Ñaparroa'ko erregearen lagun eta aolkulari zintzoa izan zan, eta, bere errege aren bizia salbatzearren, I Errando Gaztela'koaren aurka borrokan bere bizla galdu zuan Ñaxera'ko Jaun bikain arek: ALTAÑA.

"Paternus", euskeraz, "Aitarena" da, elipsia egiñez, "Aitana".


AITAÑA ote zan gure larruki ontako gizasemearen izena ere? gero, lateraz ari zan lumalariak laterara "Paternus" itzulia?


Larrukim ontako izenak danak, edo euskaldunak edo Eliz Osoarenak diran Doneen izenak dira. Ez da bat bakarrik ere, soilki bisigoten Donetegikoa danik.

Ez da beraz IX mendeko larruki ontan bisigot-izen bat besterik, Ildemiro, eta au ere kanpotik zetorren gizon batek ekarria.

Orrek zer adierazten digun? Bisigoten kulturik ez zala Euskalerrira sartu.

Latiegi'tar Bixente





TIERNO-KABRIA

(Geure Historiaren aztarnak Euskeraren Sabelean)

Araba-Errioxa'ko Elvillar errira izendatu ninduen parroko.

- Señor Cura, aquí se presenta el nuevo campanero.
- Muchas gracias, ¿Cómo te llamas?
- Lorenzo Barrera, pero todos se llaman Piti.

Lenengo eguna zan neretzat. Egunsentitik illunabarreraiño nere etxetxoaren aurretik mandoek zebiltzan goruntz eta beeruntz etenik gabeko errenkadan. Goruntz maitez beteta eta beeruntz utsik.

Udazkena. Aste bete orduko, Animen Eguna, Azillaren 2'a, eta oitura zarran zan il-kanpaia jotzea gau ta egun, goiz da arratsalde, egun osan eta orretxegaitik nengoen kezkaturik Piti nere etxean agertu zanean, ez bait nuen zeñek kanpairik jo.

- Mesede galanta egin didazu, Piti.

Piti nor zan? Bene-benetako "moro de la morería". Itxusia bezin alaia eta ona. Gorpuz zuen aundi, besoak luze, okotza aurrera emana, ezur-matrallak irtenak, bi koba-zuloetan begiak kirkillak bezin beltzak, betuliak matasa illuna eta buruko tximia betulien gaiñerarte. Anima-Egunaren bezperatik asi zan gazé tain erreak jan eta kanpaia jo.

Gure arteko gerra negargarria bukatuko urtean giñan.

Ñere aita itxas-gizona zan eta Terrobara bidean zebillen bakaillautan. Gabonetarako eldu zitzaigun gure Elvillar'eko etxetxora. Egun batez, mezu bota nion Piti'ri gurera etortzeko bazkaltzera. Bijilia-eguna zan eta amak legatza prestatu zigun arrautzetan bildurik eguerdiko otordurako. Bazkaltzen ari gerala legatza agertu zanean, onela dio Piti'k:

- Señor Cura, así cumple usted la vigilia?
- Zer, ba? Erantzun nion. Bijilia aragia uztea da.
- Así yo haría vigilia todos los días.
- Zuk zer jaten dezu bijili egunetan legatzaren ordezt?
- Un pimientico.

Ao-zabaliak utzi ginduzen aita, ama eta irurok. Moro onek benetako arrazoa eman digu. "Aragi uztea" penitentzi egitea da eta ez legatz ederra jatea.

Errioxa'ko ardoari afizio geiegi artu baño lenago atera ninduen Zumarraga'-ra. Andik laister, Santa Luzi eguna: moxalen azoka. Eguerdi-eguerdian akolito bat etorri zitzaidan presaka:

- Enparantzan ijito bat dabil zure galdezka.

Atera nuan burua leiotik eta an ikusi nuen asto, mando eta moxalen artean gure Elvillar'eko kanpai-joalea. Garraxi egin nion:

- Piti!

- Mecagüen cuánto burro!

Akolitoa ez zebillen ain oker, Piti baiño ijito txukunagorik bazegoen azoka aretan: Kolorea galdutako panazko txamarra soiñean, arabakiz ondo ornituta-ko praka-panak, gaurko egunez gazte artean moda dan baiño areago, baña Piti-'renak benetako arabakiak ziran; buruan txapel beltza naiko zarpaildua; oñetan, berriz, iltzedun bota zar aundiak Errioxa'ko buztiña eurokin zekarzte-nak:

- Piti, igo gurera.

Ezker-aldeko sorbaldan zamuka edo albarda bat zekarren, atzetik bost litroko garrafoia ardoz eta aurretik iru botilla olio. Piti ijitoa...? Orrelako errege-rik...! Errioxa'ko ardo zoragarria aaztuta neukan, Zumarraga'ko ardo napar beltzaren kulpaz; olio, berriz... Iñun ez zan tantorik ikusten (illeroke rasiona-mentuko gramotxo aiek), estraperloan ezik.

Gosete garratzaren urteak.

Badakizute zenbat baliozuan estraperloko olio litro batek? Eun peseta mando. Orbegozo'neko labe aundian lan egiten zuten olagizonek amar peseta irabazten zituzten egunero. Kontuak atera: amar peseta egunero, amar eguneko alogera bear zuten litro bakar bat erosteko.

Ta, neri Piti'k iru litro ekarri dizkit bere zamuka orretan. Sekulako doaiez beteta etorri zaigu gure ijito-antzeko erregea... Egun batzuek igaro ditu gurean eta gogoratu dituguz Elvillar'eko zenbait gertakizun eta ango bizitzaren patxada.

- Akordatzen aiz, Piti, igande-arratsaldeetan, zenbat aldiz etortzen itzan gurera kaletik deika: Señor Cura, voy a tocar más tarde para la función que aún no hemos terminado la partida?

Itzuli zan bere errira eta aaztu zitzaidan Piti zanik ere. Bien bitartean, amar urte pasata gero, bialdu ninduen Zumarragatik Deba'ra. Jakin nuen Deba'ko Mazzantini tabernara Elvillar'eko Zapatones'en semea etorri zala sozio.

Egun batez, or nun agertzen dan gurera, Piti lagun duela. Gure alkarren arteko poza. Piti'ri arrantza guztatzen zitzaion eta itxasora eramatea erabaki nuen, txitxarrota. Eskatu nion lagun bateri motordun txanel bat eta irten degu arrantzarako.

Mutriku'tik Zumaia'ra bitartean ordu t'erdi ibilli arren pikada narratz bat ere ez denbora guztian. Piti'k neri:

- Esto es el mar? Mecagüen aquí no hay ni un pez. Si hubiéramos ido al Ebro ya habríamos cogido un montón de barbos...

Neri ere macagüenka asteko gogoa etorri zitzaidan. Onek usteko du Ebro ibaia Kantauri itxasoa baño aberatsagoa dala:

- Goazen -esan nion- oraintxe bertan legorrera.

- Sí, sí, por lo que hacemos aquí...

Lurreratu giñan. Itxasoaren azal-azpiko arrainketa gogoko nuen eta baniu-tuen artarako tresnak ere. Artu ditut nere etxetik eta onela esan nien biai:

- Goazen berriro arrantzara.
- Y dónde está la caña?
- Onek ez du kañabera bearrik.

Eraman ditut biak ondartzaren eshubiko muturrera, aitzak asten diran txokora eta utzi ditut biak ondar gañean eserita, ni udetan sartzen naizen bitarean. Sartu eta amar metrorako, sarbo zuri bat neri begira. Orrela dagoen bitartean ez daukat arpoia botatzerik. Nagoen geldi. Zearka asi danean, orduan zillarrezko gorputz zapala erakutzi dit. Arpoia erdi-erditik sartu diot. Atera det arpoia udetatik eta erakutzi diet arraiña bertan indar egiten bere burua burnitik askatzeko...

Ekin diot aurrerago aitzeetan zear eta orra or, nere begien aurrea, lasun zuri eder bat eskubitik ezkerrera. Martxan dijoala bota diot arpoia buru-aldera eta tripa-barrenetik sartu zaio eta lasuna gelditu da buruntzian preso, jira batera eta bestera. Arpoiak aitzean jo du eta belarretan zerk edo zerk zirkin egin du arpoiak aitzaz jotzean. Gerturatu naiz arpoia arraiñakin jaso eta belarrai begiratu bat emateko:

- Ara emen nun dan zerkin eginduena.

Belar artean kamuflaturik, aitzari eantzita bezala, itxaskabra bat bere buru aundian dituen bi begiekin neri begira, geldi geldi. Jaso det arpoia eta, eskuan dedala, sartu diot bizkarretik barrena itsas-kabrari. Ara nere arpoian bi arrain batera: lasuna eta itxas-kabra. Jaso ditu urgaiñetik gora. Piti'k garraxika:

- Mecagüen si no lo veo no lo creo!

Artan ari naizela, durdo batek burua agertu du zulo batetik kanpora. Belarritik sartu diot nere arpoia. Kilo bat bada. Gaurko naikoa degu. Ez da oraindik ordu erdi ondartzara agertu gerala.

- Zer iruditu zaizu, Piti? Itxasoan arraiñik ba'da?
- Mecagüen cuento esto en Elvillar y no me lo creen.

Itxas-kabria da arraiñik geldoena eta arpoiez arrapatzen errezena. Arpoimuturra buru-gaiñean ipintzen ez diozun bitartean lo egongo zaizu, zirkiñik egiteke. Askotan pentsatu izan det, aiñ motela izanik, nola demontre arkitzen ote du arrain onek bere jakia? Eta, ara zer gertatu zitzaidan egun batez.

Goiz artan ur-azpiko arrantza egin bear nuela, baña arpoirik gabe, pentsatu nuen. Arpoiaren ordeztu metro bateko kañabera ariña eramane nuen itxasora, bere pita eta amuakin. Sartu det burua urazpitik eta bota det amua nere aurrean. Txitxara bizirik zegoen amuaren muturrean eta aren mogimentuetara orra or nun agertzen dan amar zentimetroko karraspio bat. Gerturatu da. Txitxarari usaika-edo dago. Oraintxen elduko zioke, nion nere buruari.

Artan, aitzaren zirrikitu batetik, tximistak arturik, itxaskabra batek irten eta irentsi du karraspioa. Amuan elduta egon ba'litz karraspioa, bi arrain arrapa izango nituen batera. Ikusteko astirik ere ez dit eman: zirrikitutik irten, arraiña irentsi eta alde egitea oiek guztiak, batera egin ditu.

Itxaskabria geldoa dala esan det aurrerago; ori, ordea, ez da egi osoa. Berak nai duanean, tximista bera baiño bizkorragoa da. Azpi-azpiko aitzaren gaiñean geldirik egotea konbeni zaio; baita bere inguruaren itxurak artzea ere. Bere margo gorri-illuna, zikin antzekoa, inguruko aitz eta belarren artean izkutatzeko egokia da. Burua du oso aundia eta agoa zabal-zabala buruaren neurrirra. Badu arantza gaizto bat ere bizkar-ezuraren asieran.

Gure itzasoaren aitzeetan itxas-kabra aundiak falta dira; gau-arrantzan dabiltenak, sakukarak arrapatzen dituzte eta azten utzi ez. Illargi berrietan, itxas-beera luzea danean, putzuak gelditzen dira aitz-tarteetan, eta gau-arrantzaleak joaten dira lau-ortzeko arpoiekin putzu oietara eta lo dauden itxaska-brak arrapatzen dituzte errezago ezin. Nere aurtzaroan, ordea, galantak ikusi izanditut Lekeitio'ko kaleetan, potiñetako arrantzaleek arrapatuak. Senarra itxasotik lurreratzean, emaztea kalerik-kale:

- Itsas-kabra aundi ederra...!

Deadar ori entzutean, dendatik irten eta nere amamak onela ekingo zion:

- Zenbatean?

- Iruan.

- Potxua, izurdia al da ba kabratxo ori?

- Au kabratxo? Begiak nun dituzu, Pillipa? Itsas-kabra aundi-ederra dozu. Gutxienez bi kilo baditu...

- Bi kilo...? Burua besterik ez du ta...

- Onek burua eta zeuk zer dozu? Begi-bista txara zeuk. Aitzetan arrapatutako itxa-kabra onek zer kolore gorri-ederra duen ez dozu ikusten?

- Illuna beintzat, bai. Bi emongo deutzut.

- Lotzarik be ez daukazu zeuk, onelako arrain ederrari bi peseta argal eskeintzeko.

- Bi t'ardi.

- Errialtxu bat geiago emoten ez badeustazu, kalian gora nola.

- Torizu ba errialtxu ori.

Pozik nengoen amamak itxas-kabra eder ura erosi zuelako. Bereala asi zan prestaketan: Eskamak ondo kendu, garbitu eta zatitu. Gero, lurrezko kaxuela batean benetako olioia ipiñi eta baratzuriak. Bialdu ninduen aldameneko den-dara perrejilletan. Zer saltsa-berde goxoa egin duen gure amamak...!

Andik egun batzuetara:

- Amama, amama, portuko arrandegi batean itxas-kabrak ikusi ditut oso politak.

- Itxas-kabrak arrandegian?

- Bai, bai, baña kolorea politagoa, larrosa kolorea.

- Azpitik zurizkak?

- Bai, bai, orixe.

- Txotxo, arrain ori ez da itxas-kabria.

- Zer da ba, amama?

- Tierno-kabria.

- Tierno-kabria? Eta, zergaitik du izen ori?

- Orixe ez dakit, txotxo; baña izen orregaz ezagutu dodaz beti.

Arazo au 1923'garren urtekoa da eta nere amama Pillipa Aranburu'k bazi-tuen garai aretan irurogeitaka urteak.

Arrezkero amar urte igaro ziran. Nere aita, itxasoko kapitana, merkataritza utzi eta bakallautan asita zegoen Pasai Doniane'ko PYSBE konpañian. Aita eta biok Donostia'n La Brecha'ko arrandegian gebiltzan bixiguren bat etxera eramateko asmotan. Tierno-kabrak zeuden saskitxo baten eder-ederrak. One-la esan nion aitari:

- Zer itxura ederreko arraiña.
- Itxas-kabria obea.
- Zergaitik ori?
- Itxas-kabria aitzetan arrapatzen dalako.
- Eta, onek nun arrapatzen dira?
- Barrurago; ondarra dagoen tokietan.
- Eta, orrek zer esan nai du?
- Aitzetako arraiña beti izaten dala obia.
- Amuakin arrapatu izan ditut Lekeition itxas-kabrak. Bein batean, bi arrapatu nitun ume koskorra nintzala eta ez dakizu ondo amamaren poza...
- Beste auek, berriz, sareetan arrapatu oi dira. Terranova'n oso ugariak dira tierno-kabra onek. Lana ematen digute itxasora berriro biurtzen...

Aitak esana entzun nuen; argirik piztu ez, ordea, nere kaska ezurretako garunetan. Andik urteetara D. Manuel Lekuona'rekin nebillen euskera ikasten beste lagun batzuekin batera. Egun batez onela mintzatu zitzaigun:

- Euskaldunok itz luzeak murriztu egiten dituguz iru silabetara, geienetan beintzat. Esate baterako or daude torculare (latinez) tolare (euskeraz); algazara (arabez) algara (euskaraz); dominica (latinez) domeka (euskeraz); Santa Madalen (Irun'go ermita erromatarra) Xantalen, eta abar.

Arrazoi du Don Manuel'ek. Or daukagu bere lagun Don Jose Miguel Barandiaran Joxemiel biurturik, Deba'ko laba-ataria (kale baten irteera) Labatai eta Terranova, Ternua... Aizkeneko itz oneri buruz, ikus "Euskaldunen LABRADOR", Xabi Otero'k 1991'teko Ilbeltzean argitaratutako liburua. Eta, onek orrela dirala, argi ikusten dala iruditzen zait, Tierno-kabria Terranova'ko Kabria dala. Terranova Ternua biurtu degu, izkera erreztuz. Lekeition, berriz, Terranovako itza Tierno biurtu zuten. Orixe izan da euskaldunon jokabidea: esaera erreztu, alegia; erderazko pretil guk euskeraz beti pretil esan oi degu, erreza goa dalako.

Terranova' ko Kabria, orra izen luzea eta gaitza, erreza go Tierno-kabria esaten. Batez ere, gerora, Terranova zanik ere erriak gogoratzen ez zuanian. Eta, auxa da gauza miragarria:

Gure aurrekoen historia gure buruetatik galduta izan arren, aien aztarnak Euskerak gordetzen ditula bere barnean. Irakurtzen jakin bear.

ARRINDA'tar Anes



ERDAL-ERAGIÑA GURE ADITZETAN

Gaztelera itzetik ortzera erabiltzen duten aditzaren joera-mota bat, euskaldunoi sartzten ari zaigu bai izketan eta gai idaztekoan. Eta euskaldun-berriena bakarrik ba'litz, gaitz-erdi! Euskaldun zaar askori ere kutsatu egin zaie.

"Impersonal" esaten duten erari buruz ari naiz. Onela, gaztelarazko "se habla, se llama, se dice, se debe, se come, se ve, se oye, se hace... se habla, se llama, se dice, se debe, se come, se ve, se oye, se hace... Nola esaten dituzte askok? nola esan bear ditugu jatorki euskeraz?

Onela esaten eta idazten dituzte askok: **"Itzegiten DA, deitzen Da, esaten Da, edaten DA, jaten DA, ikusten DA, entzuten DA, egiten DA..."**.

Gaizki al daude? Ain gaizki ere! Zearo oker eta gaizki, ez bai-dira euskera. Gaztelararen eragiñez itsatsi zaizkigun erderakadak dira.

Izan ere euskeraz ari generalarik, itzezin, deitu, esan, edan, jan ikusi, entzun eta egin, **"Nor-Nork" aditzak dira beti ta nonai.** Edo berdin dana, **Zerbait-Norbaitek egitea, esatea eta abar adierazi bear duten aditzak ditugu.**

Eta ori ez dago aldatzerik, euskal-aditzaren izakera berezia aldatu gabe, eta ondorioz, euskeraren muiña aldatu gabe.

Gaztelarazko esaldi oiek, nola esan eta idatzi euskeraz? Aditzak ZER adierazten duanean, baiña NORK jakiñekorik ageri ez danean, nola?

Adibidez: "En la calle se dicen barbaridades... Se bebe mucha Coca-cola..." Garbi ageri dira ZER esatea ta ZER edatea, baiña esaldi oiek ez du zeazten, NORK esaten eta edaten... duan.

Euskal-aditzaren izaerari jarraituz, au da biderik egokiena: NORK egiten duanaren adierazgarria agerian jartzea eta aditza beti NOR-NORK eran erabiltzea. Bijoaz adibideak ugari ta oparo.

"Se dice que... se dicen barbaridades... "Au ta bestea esaten DITUZTE... kirtenkeriak esaten DITUZTE... Jendeak esaten DU... Zeaztu gabe ere garbi adierazita gelditzen da orrela, NORBAITZUEK esaten dituztela; eta ez dirala berenez gertatzen diran gauzak.

"Se habla de... se habla mucho... no se hablan... Mintzatu dira, mintzatzten dira... Orra era egoki bat. ITZEGIN aditzaz baliatuta berriz, onela: Jendeak itzegiten du, askok itzezin dute, ontaz edo artaz itzegiten dute... Eta azkenekoa berriz, "Ez diote elkarri itzegiten".

- "Se bebe, se come..." Edan eta jan, beti norbaitek zerbait jaten eta edaten DUTE. Beraz, "Jendeak Coca-Cola asko edaten DU, asko edaten DUTE, leen ez genuan edaten, gaztediak oparo edaten DU..."

Alako tokitan "ederki jaten DA" oso oker dagoanez, nola esan? "Ongi ematen dute jaten... Ongi jan zuten, jan genuan, jan oi dute..."

- "Se ve, se oye: "A distancia SE VEN muy pequeñas las cosas y se oyen lejanas las voces". Euskeraz esateko, "Ikusten dira, entzuten dira" esatea oso oker dago, beti ZERBAIT ikusten, entzuten DUGULAKO, aditza era erabili bear beti. Urrutian txiki ikusten DITUGU edo ikusi oi DITUGU, eta otsak ere entzuten DITUGU, DITUZTE..."

Eta IKUSI orri dagokionez, beste era au ere egokia da: Urrutira oso txiki AGERI DIRA... "Se ve" esateko, AGERI DIRA, AGERTZEN ZAIZKIGU, NABARMENTZEN DIRA... askoz obeki daude, "ikusten da" baiño.

- "Se llama"... "¿Cómo se llama?" esateko, "nola deitzen da?" erabiltzea, erderakada galanta da, euskeraz mintzatzen dirala uste ba'dute ere askok. Onela bear luke batetik "Kitolis esaten DIDATE, deitzen DIDATE. Eta bestetik, norbaiten IZENA jakitekoan, onela: Mikel da nere izena... Miren du izena... Florentxi zuan bere izena...

Pozik artuko ditugu idazleen iritziak eta galderak, baita edozein eratako esaldi ta adibideak ere.

Gaztañaga'tar Jesus'ek

Oarra:

Ziurretik Gaztañaga tar Jesus gure lankide eta batzarkide langille eta ardurati izan zanaren azken lana izango zan au.

Bera il eta gero jaso gendun Euskerazaintza aldizkari onetarako gertuta eukan au.

Gaztañaga'ren nortasun eta duintasunaz konturatzeko aukera izango degu bere eriotz ondoren. Bere etengabeko ekiñaren euskal-zale askoren arteko eragiña benetan nabaria izan da.

Gure aldetik au da eman genezaken erantzuna:

Jaunaren naia adorez artu eta EUSKERAZAINTZA'ren lanari gero ta lotuago jarraitu, azken baten Euskerak iraungo ba du, eta "Euskerak irautea Jaungoiko berberak nai du" antxiña ots egin zuan erretore euskaltzale ospetsu batek, erri izkerari bizitasuna emanez izango dalako.

Gure adiskide eta jarraitzaileei, era bat edo bestera Jesus'en agurra zala-ta atsekabez agurtu gaituenei, eskerrak emanez, ziurtasun ori agintzen diegu.

Euskerazaintza



Goi Yakintzaruntz

OARMENA

Goi-yakintzari burutz u(ats txikiak -

Auxe, OARMENA, gizonak duen beste almena, oa erazteko almena, au ere gure baitan ari dan almena, batzuentzat oso zo otz eta sakona izan ditekena; baña o enbesteraño eltzen ezpada ere, naiz eta neuri oso txikian agertu, beti almen oso berezia bezela ikustekoa da; oa a izateko almena, oartu egin al-izateko be. Ta beraren bidez gizonak obeto edo ikusi ta ulertu ditzake bizia, ta naiz bere baitan naiz besteenean be gertatzen diran gogoaketak. O ela, bere gogo-eginkizunak oña ituago burutu ditzake, guzia argi ta garbi ikustean.

Zer ote da OARMENA?, nola zeda itu dezakegu bere zentzuna? Alde batetik norberak gauza guztien izaera nolako dan ikus dezake ondo, bere baitan egindako gogalpenak ortarako bitartekoaz artzen, bai ta besteen iritziak nolakoak diran ere; ta bestetik gogalpen eta iritzi oyen ondorioa nolakoa izan ditekera be, guztia OARMEN'aren bidez zuzen atemateko; o elaxe guztioi lortzeko bidea dugu OARMENA. Noski, OARMENA gure ADIMEN'aren atal bat bezela ere begira dezakegu, edo adimena ari-izateko bide bat lez; ta ortik aterra dezakegu oarmenaren ga antzi aundia, gizonak bururakizunetan ari-izateko men egokia dalarik.

Gizonak beregan dauzkan almen batzuen bitartez, ikusmen, entzumen, ikumen eta abar, beregandik at gertatzen dana atematen du, baña gertapen guztien zioa, karia edo azaga ere jakiteko, bere baitan oyen asmoak eundu edo entu bear-izango ditu ongi, ortarako bere oarmena ekitean ja irik, eta oarmen o en ondorioz yardutean izateko ere. Or ikusteko, zalantzik gabe, gure baitan ditugun beste almenekin nolako alkartasuna duen, eta nolabait be gure almen guztien egipenaz adimena elikatzen dala edo osotzen dala; almen guztiak batera datozelarik.

Aundia da benetan oarmenaren almena, ta ongi adierazten digu bera erabiltzean nolakoa dan gizonaren garaitasuna bai ta bere yaukaltasuna ere. Or nunbait dagoz gauzak, beren izanez eta beren izatean, eta gizonak guzti o en be i zeatza ukan dezake, sakon gañera, ororen oa a egitean, eta orobat asmo, asmaketa ta asmakizunak be ezagutzen ditu zeaztasunez, oarmenaren bitartez atxikita; men or'en bidez gizonak ez du bere burua bakafik ikusten, biziaren zear eta beste gizonekin a emanetan sar ditekera, o ela era berean bere bizia edatzean.

Gogo-bizia ere, oarmenez ari-izatean, aberasturik agertzen zai gu gero ta areago carketak egiten, eten gabe zabaltzean, Gizonak dituen beste menak ortarako ere ari dira beti eragitean, eta oarmenaren jokatzek besteena laguntzen du egokiro gure gogo-biziaren aberastasuna aunditzeko ta zabaltzeko. A iga ia benetan geron baitan ditugun almenen egipena, gogo-biziari eustean eta bizi ori inda a ematean; egitan gure izate-nolakotasuna goyeneko galgan ikusteko aña.

Ezinbestekoa dugu, egiazki, oarmena izan eta oarmenez yardun, gure biziaren eginkizun guzietarako, ezpailitzake eraz izango oarmenik izan gabe oldozmenak izatea; zerez izan oldozmenik ezer oartu gabe?, ezer ez erantzutea beara bezela agertzen zaigu. Beraz, ba-dirudi oldozpenak izateko ta adimenaren beste eginkizun guztietarako, oarmena dala asiera ta bidea, ezinbestean.

Biziaren zear eta berez, guziok ari gera beti gure oarmena erabiltzen, jayo ta bereala gauzaen zergatik eta zertarako jakiteko nayeana ari galararik, eten gabe erantzun egokiak aurkitzeko xedez; erantzun ori batzuetan besteai galdetzean eta besteetan gerok bilakatzean lorturik, eta ontarako ezinbestekoa zaigu oarmenez yardun, gauzaen eta beren edatzean gertatzen dan guziaren beri ikusten, aztertzen eta sakontzen, jakiteko gure egaña neu i aundienean asetzeko. O ela, egingo dugun lan guztia, ezinbestez, gure oarmena jokoan ja ita burutu al-izango dugu.

Oarmenez ari-izatea berez sortzen zaigu geron baitan bea ezkoena dan jokeraz; begiluze gera guziok gure izaeraren ondorio bidezko ta beara bezela, ta baitezpadakoa agertatzen zaigu ororen zioa jakiteko naya; apika "zergatik?" galdera, guzionaren lera mamitzen da gure baitan, bai ta zein-nai bidez azaldu ere gure biziaren edatzean beste edozein galdera baño indar aundiagoan. Jakin naya ikusten da, noski, galdera ortan, eta beara zayon erantzuna oarmenaren bitartez lortuta izango da geyenetan; besteengandik ere eldu dakigu-ke erantzuna bera, baña geuk oartzean aurkitzea nayago, egokiago gure jakin naya egokiro betetzeko.

Gizonaren adimenezko bizia bere baitan, jakiña, sortu ta ari-izaten da, adimena bera ta beste men edo almen guztiak erabiltzean, eta guztiak bear ditu bere gogo-bizia izan al diteken, oyen artean oarmena ere dalarik, lenengoa ezpada, aipaga ienetakoa bai izateko, eta guztien jokatzean lenengoa edo agertzen zaiguna; eiki gogo-biziaren gaya zein edo zein, bat edo beste izan; guzoi zein dan ikusi bear da lenengoz, ots, oartu, berari buruz gero adierazi al edo nai danaz yarduteko; o engatik agertzen da oarmena asoin bezela, gogaketa guztien asiera lez.

Mugarik ez oarmenaren egipenerako, gai guztiak baitira oartzeko egokiak, eta guztien beri gizonarentzat jakinga ia dalarik, alde edo aldi guzietaraño eldu diteke, oro atzemateko, oro ere i ikatzean. Alakotz, ain zabala azaltzen dalarik, ezin bere egipen ori iñola zeda itzea. Gizonaren gogo-bizian, o engatik, eragiten ikusi bear dugu beti, beara izango dana burutzeko ta edozein gogaya ere asteko ta erabiltzeko. Ora bada bere ga antzia alde guztietatik ikus ditekena.

Eta eziña zayo gizonaren adimena edo oldozmenaz ari-izatea oarmenik egin gabe, adimenezko jokoan zeredozer erabiltzeko, ulerga ia ezpaita oartu gabe den-dena gogoetatzea. Zabala da, oso zabala, gizonaren baitan ari dan bizia, gogo-bizia, indar ain aundia duena, oarmenetik asten diran bizi ta

inda a. Ororen asoña bezela agertzen zaigu oarmena, ta bere jokera ezinbestekoa dugu gure baitan bizirik izan dedin; bai, eziña bezela begiratu bear dugu oarmenik gabe edozein gogo-bizia, eziña ere gure adimena ari-izatea.

Oarmena goyeneko almen bat bezela agertzen bada, gure baitan yardutean, o en ondorioa bezela oarpena sortzen da bidezko etorkizunean, eta naiz gure baitan naiz guregan eta gugandik at ere gertatu ditekera; orixe oarmenaren edapena noraño eldu ditekera, zein-gabetik zeatzeraño eltzeko. Oarmenetik datorkigu, ziñez, oarpena, aitarengandik semea bezela, bidezkoa dan etorbidean, eta nolabait elburua lez be ikus dezakeguna, asi ta amaitzekoaa dan eginkizuna burutzean eta oarmenaren joko yaukala erakustean.

Alaz ere, gogo-bizian, adimenezko bizian ikusi bear dira bereziki oarmenaren izate ta jokaera. Ta goiko, goyeneko bizi berezi ortan agertzen da gizonaren garaitasun yaukala, oarmenaren bitartez atematen duguna; ondorioaz giza-izaerak duen goyentasuna ere argienik ikusteko dugula. Ta egokia izateko, garaitasun o en arauz gizonaren oldozpen eta egipenak ere neu i berbera ortakoak izatea, kariz eta egiz bere burua illa aindurik izateko.

O ela, oarmenez geron baitan eta guregan ere ateman ditekera gogo-bizian batez ere giza-izatea nolako zabala dan, noraño eltzen dan, noraño el ditekera ere, goruntz beti baña egitan goratze o en muga ikusi eziñean, benetako muga ori nunbait egon ezkeru; o engatik ezin oarmena zedariturik ikusi gure baitan ez eta lekorean ere. Men aundia egitan oarmenarena ta zabalatasun aundiena edo zayo ari-izateko duena. Argi begiratzeko, beraz, giza-izakiaren nolakotasun aundia.

Ezta ulertzekoa giza-gogo-bizia oarmenik gabekoa izatea; ba-dirudi men o en gabe gizona gauza bat baño besterik izango ez litzakela. Alakotz, bear-bea a bezela agertzen da men ori gizona dan bezela izateko; ga antzi aundienekoa, zio ori dalarik, oarmenaren jabe izatea, bere baitan ari ditekera almen ori ain zabalik erabiltzeko duelarik. Bai, beste gogo-almen guztietaz bezela oarmenaz ere ongienik begira dezake gizonak bere barne-barnean, bere baitan, gozatzeko duen goreneko bizia.

Giza-bizia, noski, o(elaxe agertzen zaigu, a igari bai, baña batik bat goreneko galgaetan edatzeko bide egokiena bezela eskeintzean, gizonari gogo-abe-rastasuna gozatzeko eman al-izatearen aukera ede ena bezela eukitzeko ta onartzeko, oarmenez egokienik atemateko duelarik. Ona izango zaigu, benetan, gure baitan gogo bizienaz eten gabe aztertzea, bertan gogo-ondasunen iturburu yoriena dugula oartzeko ta ondorioaz zorionerako bidean barna gero ta geyago au eratu al-izateko ere.

Emen dugu, beraz, gizona izadi erdian izaki yaukalena bezela, bizidun guztienganako ta gauza guziekiko nagusia dala, ta ba-du bere baitan bere goi-izate ori oartzeko almen berezia, oarmena ain zuzen, tai gabe ori ta beste almen guztiak be berarenak lez ikusteko. Goi-goyenekoa, o engatik, bere iza-era gogo-bizian izan ditekera guzia ongienik atemateko almena duelako, oarmenaren bidez jakin dezakelarik.

EUSKO FOLKLORE ALEAK

(1956. urtean Loiolako Santutegi inguruan Goikoetxea'tar Joanek S.J. bildutako Eusko Folklore-aleak)

Kiku miku,
anda miku,
txantxa perro
kastellano,
plon plon
ikusi det lerdie,
lau intxaurra lerdie,
bosgarrena plus,
ladron milistron.

(Tolosako umeak taldeka kantatzen
zutena)

Pater noster,
txanpona laster.

Pater noster,
zerua laster.

Sursum corda
Atzokoa zor da.

(Zerain)

Martxoon zazpiin,
aizkeneko arbie saskiin.
Lapirittue beraren azpiin.

(Zerain)

Enero, febrero, martxo, abril,
Erramon matraza dantzan dabil.
Zeñekin? Zeñekin?
Kanpox-eneko atsoarekin.

(Loiola. Errementari baserrian)

Bata,
Bia,
Trua,
Laua,
Boa,
Sea,
Zapa,
Zotza,

Baga,
Biga,
'ruga,
Laga,
Boga,
Sega,
Zapa,
Zotza,
Beatza,
Motza.

Errotaria
Kaskerra
Motza

Errotari
Kaska-motza.
(Zerain)

(Azpeitia)

Iñuxente
baba-lora,
txakurren buztena
gora gora.

(Sondika)

Iñuxente
Paloxente
Txakurren buztana
tente.

(Zumarraga)

Samikolas
kilis kolas,
artoa jan
eta jolas.

(Zerain)

Samikolas
kilis kolas,
artoa jan
eta jolas.

(Zerain)

Aizkorri tontorreko
aizearen otza,
antxen ikusi nuen
praile buru-motza.

(Zerain)

Azkeneko trantzian,
gaItzak eten atzian

(Azpeitia. Imanol Ellas)

Joxe moxe kitarra,
auntzak aiñako bizarra.
Botako luke, botako luke
Prantziraiñoko puzkarra.

(Loiola. Errementari)

Kattalin,
Pottolin,
katillu zarrean
kak egin.
Katillu berrina gorua
Kattalin birigarrua.

(Zumarraga. Linazasoro)

Amama gona-gorri,
mutil begi-zuri,
neska kolore gorri.
A la kinkirrinera
a la zamurrenera,
Anttoni goiko-kaleko
jira beste aldera.

(Azkoitia)

Malmazorro,
marikonpaña,
nork egin dizu?
Ba dakizu.
- Joanda lepoan
ekarrizu

(Azkoitia. Arantza Ispizua)

Atxia motxia perori pan
nere semea errotan.
Errotara nindoiala
topatu nuan euli bat,
etara nion begi bat,
ipiñi nion beste bat.
Sai, bei, iri adar, amar, paga.

(Azkoitia. Arantza Ispizua)

Txintxilin bonba
serorea non da?

- Kanpaia jotzen.
- Zein il da?

(Loiola. Azpeitia)

Bat, bi, iru lau,
Txominek andria palta dau,
ura billatzen ezpadau,
etxetik kanpora bearco dau.

(Soraluze)

Abeix bixto
mi basabei?
Un dilin dan
zintzarri de madera,
genio fú fú
Cuando ve hombre hacer así así.
(baserritar bat omen zan
mendi-beiak zeuzkana.
Erderaz zekien aixea ornen zeukan,
eta ori erakusteko,
elizatik etxera zijoazen
mendi-baserritarrei, bere mendi-beien
berri galdetzen ornen zien,
ezaugarri oiek emanaz.
"Hacer" "así así" esatean,
burua astintzen ornen zuan,
adardunak jotzera dijoanean antzera.
Mikolas,
Kilo-kolas,
jan ta jolas.

(Elosiaga. Azpeitia)

San Sebastian ótza,
neguun erdiko biotza.

(Kukuerri. Azkoitia)

Gabon,
janda egon.
Natibillete
ase ta bete.
San Estebantxe,
atzera len ainbestetze.

(Kukuerri. Azkoitia)

Salanton,
Bixigua monton

(Kukuerri. Azkoitia)

Kandelario, lario,
Atxari ura dario,
erroteari urune,
au da guk bear dogune.

(Zeanuri. Arratia. Bizkaia)

Dagonien bon bon,
eta ez dagonien
bietza txupatuta egon.

(Kuberri. Azkoitia)

Eguzkia mendi ertzean,
pertz-esnea gelatzean,
neskatxa etxeratzean.

(Zumarraga. Garbiñe Linazaroso)

Txis-tu. Mix-tu.
Or-ga-nix-tu.
Nik-billatzen
ez-padet
bi-begik
ken-du.
(Izkinka-silabeando)
(Gauza bat galdu danean,
ezkerreko esku gaiñera
txistu mordo aundi bat bota,
eta beatz indizekin gurutzeak
mordoaren gaiñetik egiten dira,
goiko itza auek esan ala.
Gurutzeak egitean,
beatz puntaz esku-gaiña
ikutu egin bear da,
ez gurutzeak txistuaren gaiñetik
aidean egin.
"Kendu" esatean
beatzarekin txistu-mordoa
erdiz-erdi jotzen da,
eta mordorik aundiena joan dan
alde artan dago galdutako gauza ura.

(Zerain)

- Emeituk, emeituk, (emen dituk)
- Altxaperook botatzen asi ituk
- Mile baituk (bai dituk)
- Mile...? Demonio totoa. (tontoa)
- Baita berreun ere.

(Zegamarrai Zerainen)

Lagun talde bat dago erri-ondoan,
Arantzazutik datorren peregrinazioa-
ren zai. Urrutira begiz ikusten dituzte-
nean batek dio: "emeituk", eta beste-
ak "Altxaperook...". Besteak dio:
"Mile...", eta azkenenekoak, bere burua
goititu nairik, botatzen du atea).

IÑAKI GOIKOETXEA



EUSKALERRIA

Euskalerrria, euskerak duen txoko entzutetsua dogu antziñatik. Aldaketa ere nabari zaigu bertan: leenago Euskalerrria euskalduna zan bitartean orain Euskalerrrian euskeraz, au da aldaketa. Alaere (dana) ez da izan oi inoiz naiz eta orrela aditu geienetan. Izan ere, euskera errikoia bat, bai ote leike Euskalerrrian? ez ote goaz jakintza arloan gure uste itsu-itsuan jarriaz?

Denbora askotako oar eta ikaspenak argi eta garbi adierazten digute; batez ere emen Euskalerrrian, Berri Ona argibide bearrezko degula Eliz amaren babesean. Alaere, askatasuna degu bere deiaren aurrean, ona ala txarra aukeratzeko. Gizadia eta batez ere euskaldunok, dei onek txunditu egingo gaitu bear bada, askatasuna degula izenaren aurrean. Sinismenaren argi izpiak dizdira egingo digutelako gure sendimenduak suzpertzeko.


"Garai bateko Lincoln, lendakari Ipar-Amerikarrak, onela esaten omen zuan. Gizabidea daukanak eman bear duala". Ikasbide bikaina ba lendakari, irakasle, apaiz, guraso, eta zerbait gerala uste degun gazte eta euskaldunontzako ere... Era onetako EUSKERAZAINTZA, eta ondo aziaren eragin batek poliki gozatu-ko luke gure Euskalerrria. Euskaldunok ere sinistuta bizi gaitezen obendun gerala, eta ziurtatzeko andereño onena amabirgiña degu otoitzaren bitartez. "Euskerazaintza" aldizkarian eta (Euskalerrria) izen buru jarri diot, nere ideia batzuk bertan idatziaz. Euskalerrria obeagotzeko ardura izateak, euskaldunago izaten ere lagunduko digula dudarik ez dago.

Ni gogoratzen naiz, gaur daukagun aita santua autatu zutenean, nola irakurri nuan: "Gizonarekin arduratuta dagon gizona da". "Espillu argia au, ludi edo munduan gizon bakarra daukaguna".

Idatziak-idatzi eta esanak-esan, Euskalerrrian ¿ez ote gera bizi pakearen egarri, edo ona nai eta ezin, gure erlujioa, sinismena, ama-elizak diona eta beste zalantzan ipiniaz, euskera eta beste zenbat aurrerapen aurreneko mailan ditugula?

Benigno Madina





ORRAZKERARI BURUZ

Iragan Urtarrillaren 10-an, DEIA egunkarian zuk idatzitako lana BATU ORRAZKERA DA irakurri ondoren, zerbait esan bearrean nago.

Orokorrean zurekin nago. Zuk esaten dituzun gauza guztiak egiak dira. Egia biribillak, gordiñak. Zuk eta nik, bearbada abia-puntu ezberdiñak izango ditugu, baiña elmuga berdiñera begiratzen degu. Zuk euskera maite dezu. Euskerak kezkatzen zaitu. Euskeraren geroari begiratzen diozu. Neri ere berdin gertatzen zait. Baiña bizkaitarra naizen aldetik, zure lanari buruz gauza batzuk astertzera noakizu. Ez nuke nai eztabaidatu. Ez nuke nai aserretu. Bakarbakarrik gauza batuk zeaztu. Nere eritzia azaldu.

Euskera sustraiaren bakarra dela diozu, baiña adaska desberdin asko eman dituna; euskaldunok ezin ulertzerainokoak askotan. Ori egia danik ezin ukatu.

Baiña nik auxe esango dizut. Adaska desberdiñ guzti oiek enbor bereko sustraietatik xurgatzen duten ongarritik bizi dirala, beraz, odol bereko anaiak bezelatsu dirala, eta bata besteari lagunduz, eztagola zertan iñausi, arrotz usaidun adaska berriak jartzeko. Borondate onenarekin elkarri laguntza ematea aski izango litzatekeala, eta ez eriotzara garamatzen izkuntza arrotzetara jo euskera batua egiteko edo euskera bat guztiontzako osatzeko.

Eta euskara delako garrantzizkoa, gaude batuaren alde bestela ez bait du luzaroan iraungo. (Au zeuk idatzia da).

Aldaketa egin bear zela? Noski baietz! Baiña aldaketa egiten danean, edo zer aldaketa, onerako izaten dela deritzait. Kale, etxe, soro, zelai... aldatzen diranean, obeagotzeko edo etekiñ geiago ateratzeko izaten dira. Au orrela izanik, orrek, gaur batutzat ematen diguten orrek, gure izkuntza aberastu, obeagotu, edertu egingo dula uzte aldezu? Euskerari iraun-arazi egingo diola? Luzapena ekarriko diola? Ni baiño baikorragoa zera.

Baita ere diozu. Euskara ikasi bear dutenentzat berriz, txara izugarria billakatu da. "Kontxo Atxaga Jauna". Gauza berri bat ikasten asten geranean, batez ere, utzetik edo ezer ezetik asten geranean, gauzak zaillak izaten dira edozer arlotan. Ni eskolara joaten asi nintzanean, eta ni bezela erriko mutiko denok, ez genekian erderaz tutik ere. Ez genduan itz batik ere ulertzen. Baiña guretzako etzuten erderarik aldatu. Etziguten txara lorategi biurtu. Gutxi ikasteko bada ere, (eta ni gutxi ikasitakoa naiz) txara barrura sartu bearra izan genduan. Oztopoz betetako txara gaiztora. Txara kendu bear zela? Kendu zuten, baiña gauzak ez dira obeagotu: leno bezela jarraitzen dute, edo gaizkiago,

neketsuago, mingarriago, bada txara kaltegarria lorategi jartzeko ustetan asi ta euskera arantzadi billakatu zaigu.

Batua orrazkera dela diozu. Euskararen orrazkera eta jantzi jakin bat. Zure ustetan orrelaxe izango da. Baiña zuk ondo dakizu batua orren sustraia ta edatzea nun, nola, eta zertarako sortutakoak diran. Ondo dakizu Euskaltzaindiak batua ontzat arturik, araudi batzuk jarri ditula, bai ikasketak egiteko, eta baita edozer motatako leiaketetan parte artzeko, eta araudi oietara makurtzen eztanak, alperrik onena izan, "jai daukala". Jokaera au, ¿ ez alda beartzea, derrigortzea? Zergatik neri erropa berria jantzi, soifnean dedana askoz ere obeagoa, txukunagoa, garbiagoa ta neure gorputzari itxura bereziagoa ematen diona bada?

Gaurko ikasle askori etzaie orrelako gauzik gertatzen. Ba-dute nun arakatu. Ortxe dituzte erderaz jositako sasi euskeran egindako liburuak, (nere etxea lekuko) eta ikasketak orrela direla medio, euskera arloan berealaxe jakitun egingen dira. Nolako jakitunak ordea?

Orretxegatik, batua orretan egingen dituzten lanik geienak (ez denak) ulergaitzak izaten dira. Traketsak, biurriak, zikiñak. Orretxegatik baserritar, arrantzale ta erritako jenderik geienak ezin izaten dute ulertu. Orretxegatik Basarri'k eta Xalbador'ek argi esan zuten batua etzutela ulertzen, naiz eta euskera mota orren sortzailleak gipuzkeran eta ipar-aldeko euskeran oiñarritutakoa zela adieraztera eman. Ez ote zekiten euskerarik bi bertsolari aundi oiek? Ez ote dira ikasketa nagusiak egindako asko, erderaz betetako batua orretan baliatzen, benetako euskeraren ezjakintasuna ez azaltzeagatik?

Ba-dakit, eta ezagutzen ditut batuzaleen artean euskeraz ondo dakitenak. Asko dakitenak eta mesede asko egin dezaketenak. Baiña beraien zerbategatik edo ni ezagutzera irixten ez naizen zeozergatik, batua erabiltzeko jokera dutenak. Zergatik? Ez ote zegon batua ori beste euskera obeagoan egiteko aukerarik? Ez ote zegon ortarako gizonik? Ba-dakigu gipuzkeran eta ipar-aldeko euskeran baliatu zirala batua egiteko, baiña... Ez ote zegon bizkai aldean aintzakotzat artzeko gizonik? Gure euskerak, bizkaitarren euskerak, ez ote dio euskerari ezer eman iraganeko urteetan zear? Bizkaitar idazle zaarrak alde batera utzita ere, batua asmatu zutenean, ez ote zeuden bizkaian, (beste askoren artean) Akesolo, Onaindia, Goikoetxea, Kerexeta, Olazar, Zubikarai eta zerrenda luze bat, euskerari buruz zekaten ezaupide ta eskubidea argi aitortzeko, eta beste batzuk beren eritzia entzuteko?

On Manuel Lekuona ta Orixe aipatzen dituzu, baiña beraiek aitortutako esaldi batzutan bakarrik.

Ondo dakizu bi gizon jakintsu oiek beste gauza asko esan zituztela. Beste era bateko batuaren alde zeudela, baiña... Lekuona jaunari egin ziotenari buruz, zer esan?

Ezta ere ez dituzu aipatzen Arenaza, Labaien, Mokoroa, Arendui ta beste jakitun askok esan zutena. Bere garaian idatzi zutena.

Ni ez naiz emen asiko oiek esandakoa egia edo gezurra den eztabaidatzen. Ez naiz mailla oietara irixten. Baiña gauzak orrela diran jakin nai izan ezker, Latiegi jaunak idatzitako liburura urbiltzea besterik ez dezu. Bertan aurkituko dituzu bear dan bezela zailkatuta izenak, lanak, egunak, lekuak eta beste aibat gauza garrantzi aundia dutenak.

Aurreraxeago onela esaten dezu. Inork ez du esan euskalki desberdinetako

hitzak jaso eta erabili behar ez ditugunik. Baina inork esan ez badu ere bizkaierakoak erabat baztertu ditugu. "Zorionak Atxaga Jauna". Ba-da garaia orrelako zerbait irakurteko. Ukulluratu zuten bizkaiera, zelairatu bear dela aitortzeko. Eskerrik asko Atxaga Jauna.

Gero onela jarraitzen dezu. Euskara batuak, nonahikoak, eta Bizkaikoak ere noski, bildur behar ditu. Eta hori idazleen egitekoa da batez ere. Zapuzturik diren bizkaitarrei baturanzko euskararen bidez beren altxorra eskaintzeko eskatuko genieke, beraz, bizkaieradunek bakarrik egin dezakete hori. Bizkaieradunek bakarrik? Eta zuek zer? Euskal erakundeak zer? Ez ote dakizu Fermin Iraolagoitia Jaunari zer baldintza jarri zioten, bizkaieraz idatzita zeukan lan aundi bat argitaratzeko laguntza eske joan zanean? Ezetz? Neuk esango dizut.

Lanari buruz etzioten eragozpenik jarri, etzioten ezer esan. Baiña idazkera aldetik bai. Laguntza izatekotan batua idazkera aldatu bearke zuala bizkaieraz eginda zeukan lana, bestela etzegoala laguntzarik. Ori ote da bizkaieraren altxorra edatzeko bidea?


Eta bizkaitarrei baturanzko egiten diguzun eskabideari buruz... Zer da esan nal diguzuna? Bizkaitarrok geure euskalkian batua sartzen asteko? Zertarako? Beste euskalkien antzera zikinduta uzteko?

Gero onela diozu. Euskara ulerkaitza eta jasanezina ari gara egiten hegoaldekoentzat ere askotan. Are okerrago, euskararen muina ari gara jaten, barne-barnetik. Euskara bera ari gara erdalduntzen. "Milla esker Atxaga Jauna". Baiña gaitz orren errua, ¿nori ezarri? Guri ez beintzat! Gaitz ori ba-dakizu nondik sortutakoa den. Ba-dakizu nun dagoen. Baiña ala ere batuaren alde zaudetela diozu.

Gu ere batuaren alde gaude, baiña beste era bateko batua. Euskaldun guztiek ulertuko luketena. Euskera babestu, gerizatuko dun batua.

Azkenean onela diozu. Gaitz honi erremediorik jartzen ez badiogu, gaztelanien dialekto berri bat sortuko dugu. Sortuko dugu? Sortuta dago! Oraingo batua ontzat artu zen une berean sortu zen.

J. M. Azpiri





EUZKERAREN AUZIA MENDEETAN BARNIA

Ba-dago, ikusteko ta aipatzeko ere mendeetan barna gure izkuntzari buruz gertatu danaz; zer izan dan ori jakiteko, lenengoz, baña ortatik atera ditezken ondorioak nolakoak izan diran eta nolakoak izan bear diran ikusteko.

Euzkeraren aurka eten gabe ari-izatean bi egite agertzen dira beti o ela jokutzen eta lan negarga i ortan ongienik alkartzean, gure E i'aren bizia gero ta geyago ziztutzen, aulatzten eta ondatzten; E i'aren zabarkeria ta gure jakintsuen ezeztatzea bat dira, ta gure aldameneko late ien izkuntza ta gogo-lantzeen jokera bestea. Ta a iga iena auxe: ainbeste zabarkeri ta ainbeste jazarpema jasan bear-izana en, ementxe dugu oraindik euzkera bizi-izate eta bere inda eta bizitasuna age erazten; benetan ongi ulertzen ez dan egipena.

Eta gutxienik ulertzen dana, gure au ekoen zabarkeria izan da; baña nolako zabarkeria!, guztiz lotsatuta agertzeko eñe. Euzkera, gure E i'ari ta onen semeai izena eman ondoren, Erraren gogoari eusten ari-izana da tai gabe ta mendeetan barna; euzkera gure gogoaren eguratsa dalarik, gure-gurea izanik, eta bere galtzearen au ean bost ajola; euzkalduna beti amor-egiten, Azkue'k bere iztegian diñoen bezela. Nola o elakorik ulertu? Ludi'ko beste Eri guztiek beren izkuntza maite dute barne-barnetik eta beraren alde beti jotzen, naiz jakintsuek naiz ez jakitunek ere; ta gurean ez batzuek eta ez besteak be, ergelkeriz beteta, Erraren izkuntza ta bere gogoaren aurka yardutean; negarga i benetan orela gertatu dala oartu-beara.

Gure jakintsuak batez ere; nola etzuten ikusten gure gogo-biziari eutsi al litekena euzkera bakarik zala?; eta, jakiña, jakintsuak orela jokutzen zutelarik, zer egin lezake eri a unta?; alakotz, erantzunik aundiena jakintsu ayengan ikusi bear. Batzuen batzuk, bai, euzkerarenganako beren ardura ta maitasuna ager-tu zituzten, baña oso gutxi beti, ta guziak ziran orela jokatu bear-izana zutenak. Nola guzti ori ulertu? Azkue'k, ori buruz, euzkaldunak beti amor-egiten ari-izana zirala diño; ortan edo, ainbeste zabarkeriaren azalpena?

Amaseiga en-mendean argitaratu zan euzkeraz idatzitako lenengo idaztia: "Linguae Vasconum primitiae" (1545), Beñat Etxepare, Eyerala e'ko apaiza izan zanak idatzita. Euzkeraz idatzi ta izena lateraz ipiñi; orek adierazten digu, naiz idazle ura naiz bere atzetik sortu ziran Joanes Leiza aga naiz Axular eta besteak, geyenak bederan, apaizak izan zirala, ta ori izateko, apeztegieta egi bear-izana zituzten ikasketak lateraz buruturik izan egin ziralako, guziak latera-koyak izan ziran eta bidezkoa izan zanez berak idazteko erabili zuten euzkera lateraz ere kutsaturik atera zitzaizen.

Ora, ayek uste-izana gabe, baña egiten, euzkeraren egituraren aurka burutu-tako kaltea. Ez da ustekoa, noski, ayek ori ikusi zutela; baña geuk bai, guk argi ikusten dugu jokera ura ta o engatik ez ditugu ayek eredutzat artu bear, naiz eta ayen lanak oso aipaga iak izan.

Etxape izena baño "Dexepare" da geyago ezagutu ta erabiltzen dana; ta or dugu parantzeraren eragipen bat, izkuntza onen eraz euzkaldunak ere erabi i zutelako, abizen oni buruz onela: Beñat de Etxepare, Beñat d'Etxepare,

Beñat Detxepare'raño aldaturik; ta ori bezela amaika abizen, eta gutxi edo o(ela dagozela ikusten dutenak. O a, beraz, argienik, erderak eragindako aldakuntza, ainbeste abizenetan buruturik; ola ere geuk aitzu bea(ez duguna ta egin bea(duguna, gaur euzkerak daukan zepa kendu ta gure izkuntza gai guzietarako garbiturik, bera dan bezela erabiltzeko.

Len, euzkeraren aurka jokatzean gure e ita en zabarkeria aipatu dugu; ona emen erderaren eragipena, lenengoak egokienik lagundu ta laguntzen duena. Lenengoa euzkaldunena izan zan, uste dezakegunez euzkaldun guziena izan zana; biga ena, erderarena, baña egitan lau erderaena: latera, parantzera, gaskonera ta españera..., ta alaz ere oindiño euzkera bizi.

Ortik edo ta norberaren gogoa elikatzeke, euzkera iñoiz ez eta, aitzitik, beti erdera erabili dalako, zerbait ikasi duten euzkaldunak oro erderaz oldoztu egin bea(dutela, ta, enurarik ez, ortxe dugu euzkeraren aurka agertzen zaigun beste eragozpena, bai ta erderaz ari-izateko guztien jokera. Amaika oztopo euzkerari dagokion eta bea(a zayon bidean barna ibili alizateko; noski, oztopo guziak bat-banaka kendu bea(ditugu, euzkera yarei bizi dedin eta o(ela bere etekin mardulak eman al ditzan. Ba-dugu lana gure izkuntza au bera dan bezela ta guzirako erabilita ikus dezakegun, eta egiazko bere bizian barna ibiltzen eta erabiltzen lortzeko.


Gaitz erdi gure ebazkizun aundi au euzkaldun guztien aldetik argi ta bea(dan bezela ikusita izango ballitz; baña zoritxa ez gutxi edo dira gure artean gaur euzkeraren egokera ondo atematen dutenak; eta zioa nun?, lengo zabarkerian?,..., nun? Oro bat jo, aipatzen ditugun jokera guzti oyetan apika.

Nola, baña, jokera tx(a(guzti oyetatik atera?, nola guztien aldetik gure ebazkizun aundi au zuzen ikusi? Zara benetan. Alakotz, guztiz bea(a, ezinbestekoa da ororentzat auzia ondo begiratu, aztertu ta sakondu egitea; nola egokiro eragin gure anai euzkaldunak gure bea(aundi ori ikusi ta erabil dezaten?, zala ere orixe lortxea. Eta ezpaitakoa dugu oso, euzkeraren semeak, ots, euzkaldunak beren amaren biziari eusteko lan ori egitea, bidezkoa danez.

Nai ta nai ez, orixe euzkaldunen auzi ga antzitsuena, guziok au era ateratzeko zain eta muin gure gain artu ta lagundu bea(duguna; ta orixe gure biziarena ta gure abe iaren biziarena dalako, guziok, iñork zirikatu gabe, gure biotz guziaz maite ta zaindu bea(-izango genuke, aita ta ama anayak, geroren odola berez maite oi ditugun bezela.

Eta be iz ere ta eten gabe, ebazkizun au ororena dala goraki esan bea(da; beraz, gure izkuntza bea(dan bezela lagundu ta erabiltzea gure E i'an jayo diran guztiek bete bea(duten eginbea a dugu, ez da au(ak ikastoletan bete bea(duten eginkizuna baka ik; bai, ororena bezela onartu bea(dugu, guziok eta bakoitzak: au(ak, gazteak, adiñekoak, za(ak, neska ta mutilak, gizon eta emakumeak, ots, E i osoaren ebazkizuna, ta betetzekoa dan eginbide oroka(a onartzean. Eta ez da ondo ulertzen gurean ori esan bea(dala; Ori, Eia egiz maite-izan ezkeru, berez sortu bea(-izango litzaiguke guziori barne-barnetik, biotz-biotzetik; gaurko ontan, zoritxa ez ez da ori gertatzen, eta o(engatik ain zuzen, alegin aundienak egin bea(ditugu gure E i osoan o(ela gerta ditekene. Gure Eña bizi al izateko, ezinbestekoa dugu ori zearo; eta beste aldetik, gure e ita ak oro bide ortatik gogoz joango balira, argienik erakutsi al izango genuke E i osoaren bizi-izateko naya. Ia noizpait ori o(ela ikusi al ote dezakegun.

Umandi



OINARRIZKO ITZEN ARDURETAN

Jesus Iribarren jaunak gure lankide dan Bixente Latiegi'ri idazki bat bialio dio. Gaztelaniaz egiña da ta euskerara biurtuta agertu nai degu:

Bixente adiskide:

Euskerari buruzko bigarren eta azken idazki bat agindu nizun. Oraingotan kezkatuta nabil "oiñarrizko iztegi" labur batekin. Azpaldiko kezka da, zarra. Ezin lezake pentsatu moltsokako euskalduntzetan gero erabiliko ez diran millaka batzu itz ikasita. Aldez, ba dagoz oiñarrizko bear izanak eta auek bai erabaki lezazke oiñarrizko itzekin.

Egun batzuk dira, Postas kaletik nebillala, guraso gazte bateri bere iru-lau urteko txikitxo bateri esaten aditu nion: "Portau ondo, bestela..." Nere ume denboretan Eibar'erako egon zan jendearen erasoan, an itz agiten zan euskeragoratu zidan.

Oiñarrizko izkuntzari buruzko ekitaldi alegintsu bi ezagutzen ditut: errusitarra eta ingelesa.

Oiñarrizko ingelesak 850 itz ditu bakarrik. Ogden'ek sortu zuan 1926 eta 1930 artean, eta Churchill eta Roosevelt'ek suzperu zuten. 850 itzetik 600 izenak dira eta beste 150 izen lagunak. 18 aditz erabilten dira bakarrik. Aditz auek, beste itzekin elkarturik 4.000 aditz standard ordezkatu lezazke. Arau gutxi dira itz azkar, eta alderatzeko eta abar osatzeko. Ortazko zeaztasunak Encyclopedía Britannica'n aurkituko dituzu. 1945 urtean agertu zan España'n "Vocabulario de inglés básico" deiturakin eun orrialdeko liburutxo bat, M. Sanchez de las Casas'ek idatzia (Editorial Doddat) eta an gaztelaniz itz egiten dutenentzako itxurazko aozkatzea ere sartzen zan.

"Gaurko errusikerako itzen erabilkortasunerako Iztegia" k beste elburu bat du: errusitarra erakusten duten mundu guziko irakasleentzat egiña da eta ugarrien erabiltzen diran 2.500 itzen aukera egiten du. Evy Steinfeldt bere 300 laguntzaillekin egiña da. (Mosku, Progreso argitaldaria, 234 orrialde).

Jakingarri da bere erabilpidea.

Bete-betean 400.000 itz batu ziran.

- 1.—100.000 zazpitik amabost urte bitarteko gaztentzako irakurgaietatik.
- 2.—50.000 Egille ez-berdiñen textutatik, itz-lauzko elerti liburuetatik.

3.- 50.000 antzerki lanetatik. Egille ezberdiñen 25 lanetatik.

4.- 100.000 gaztediarentzako irratsaiotatik (100 irakurgai).

5.-100.000 idazleen lan, ikerlan eta abarretatik.

400.000 ítz orreitatik, 24.224 ítz ezberdin sortu zíran. Ugarítasunak aztertuta, ugaríen zíran 2.500 aukeratu zíran. Gure eta elkartítzetik (errusitarrez 14.576 eta gure "zaratatsu"ren kideko 14) artekoak dira.

"Oiñarrizko ingelesa" eta "errusitar oizkoa"ren ereduak elburu ezberdiñak ditue. Uste det euskerarekin biak ondo letorkezala: euskera itz-egiñaren eta idatziaren ugaritasunen azterketa zeatz bat eta 800 itz-dun oiñarrizko iztegi bat noiz-naiko gertaeretan agertzeko. Baiña ez "portau onda..." aditzeko eran.

Gaiñekoa zuen eskuetan dago. Ez egizu esan denborarik ez dezula. Laguntzailleak billatzean dago koska eta zuzendaritza bateratu bakarrik. Zuzendaritzako astia beti egoten da.

Fotokopi bat bialtzen dizut. Agur biozkor bat Xto'gan.

Jesús Iribarren

EUSKERAZAINTZA'k, eskerrak emanez Iribarren jaunari 800 itz berak bilzteko eskatuz erantzun dio, guk 800 itz oiek euskerara biurtu dezaiozkegun.

Euskera txukundu eta erraztuten
Indar barrien denboraldietarako euskera?



Energía demandaren simulariorako eredu integratua.

Potentzial energetikoen azpierrezua.

Efíziéntzia energetíkoko azpierrezua.

SOX, NOX, CO konposatu organiko hegazkor eta partikula solido jaulkipe-
nen kuantifikazioa.

Proiektu energetiko ezberdiñen konparazioa eta aukeraketa objetibatzen
duen azken indiza bat definitzeko metodologia bat eratu da.

LIBURU BARRIAK

Aspaldi danik ez dautsagu liburu barriak kontutan eukiteari jaramonik egin, eta bear beste ez, baiña batzuk argitaratu izan dira azken-bolada ontan. Egoki jaku ezer-edo-ezer adieraztea idazleen pozerako be. Ona niri eskura eldu jatazan geienak.

MARKINA-XEMEIN II.- Ez dot aurkezpen bearrik. Ondo ezaguna da euskal literaturan Augustin Zubikarai, ainbat liburuen egillez esker doguna. Lento-xoago eskiñi euskun, izen bereaz, lenengo atea, eta orain damosku bigarrena, Markiña ta ingurutako eleiza, ermita, gizon ospetsu ta bazterrei buruz osotua. Idazti bikaiña, 352 orrialdekoa, argazki asko be askoz apaindua. Berak eta Juan Fernandez Egiguren'ek antolatua. 1991. Liburu ederra markiñaldekoentzat batez be.

Zer daukazu bertan? Saltoka aurkibidea begiraturik, ona gauza batzuk interesgarriak edozeiñentzat: Onako liburuak gogoz eta astiro irakurri eta ausnartu bear geunkez, gure ingurua zer dan eta guretikoak zer egin eben aitzu ez dagigun. Orretarako jatorkuz ainbat idazti jakintsu Zubikarai'ren eskutik. Egin dauskun lana ez dautsagu iñoiz bear lez eskertuko.

Por Alava a Compostela (del paso de San Adrian al Ebro) una ruta europea. Egille, Micaela J. Portilla. 342 orrialde. Araba'ko Aldundiak argitaratua, 1991. Liburu mardul jakintsua, lengo urteetan, Europatik gure errietatik ibiliz Konpostela'ra joiazanen pausuak nundik norakoak ziran erakusten dauskuzana. Egokiak onako lanak gure istoria sakondu ta errotu al izateko. Niri beti atsegin izan jat bide orreik ibilli, ikustatu eta mirestea. Izan be Gipuzkoa zearkatu, San Adrian axpea Aitzondoan igaro, lautadaz lautada Ebro zearkatu ta Miranda'n agur egitea biratzat bai arrigarri!

Joandako gizaldietan erromes ugari ebillen gure baserrietan, gabaz, eupadaka eta ez beti santu-santuak, naiz-ta gero euren paperetan idatzi euskaldunak naiko basati giñala; gutarrak, alan be, nasai-nasai gengoan gure aterpean, eta gau illunean txakur-zaunkak sortzen ebiltzanak, jakin ez zelako piztiak ziran genduzan.

Letra eta argazkiz bikain-bikain jantzia. Lan txalogarria M.J. Portilla'k eskinzen dauskuna. Eskerrak baita Araba'ko Foru Aldundiari.

Oleriti (1985-1986). Urte asko dira Oleriti sortu nebala. Izan ditu urte ederak, eta makalak be bai, baiña aurrera darrai, urteetako esturak erdi-illik itxi bage. Gaur-egun ezta erraz olako aldizkari batek aurrera egitea laguntasun sendo barik. Olerkiak eurak makalik dagozala deritxat azken urteetan; len osasuntsu ebiltzanak, gaur moteldurik dakusguz, izotzak oritu ditun landarak lez.

Azken urtez "Eusko-ikaskuntza'ren adorez bizi jaku, esker beroak berari. Gogo ona ta sua bere lanerako, orrek ateratzen ditu gauzak aurrera, orrek utsegin ezkeru, illunak murrizten.

Urteak aurrera, eta gizasemeak zaartzen. Ainbat olerkari joan jakuz urtee-

tan, Gaztelu, Markue, Bidaguren, Muniategi... beste batzuk oso lanpetuak, olerki-girorako kemen faltaz...

OLERTI 1991. Esku artean daukat azken numero au. Poesi jatorrez, poemaz, bertsolari lanez, itzulpenez eta iritzi-zatiz betea. Goi ala bei ete jaku egaitzen? Batzuentzat ondo, beste batzuentzat ez ain ondo; arentzat erdizkako dana, onentzat ez ain txarra. Nundik eta nok begirutzen dautson; argi danak ez dira bardiñak, batzuk zuriak eta urdiak baino. Bakotxaren eskolari dagokio An eta emen beti aurkitzen utsak.

Itzulpenetan Karol Wojtyła'rena eta abar.

IPUIÑAK. Errose Bustintza, "Mañariko" k egi. a J. Kerexeta'k batu ta Gero argital-etxeak liburu panpin galantean emondako lanak. 181 orrialde marrazki polituz apainduta. 49 ipuin. Berak idatzi ta or-emengo aldizkarietan argitaratu zituanak ala bipillean daukazuz.

Sorgin eta Lamiñen gaiak dituzu ara-or, Errosek euskal jentearentzat lau ta dotore azalduak. Nik itzaurrean "Ipuin sail bikaiña, errekarte beera datorren ura balitz, berez-berez bape indartu barik irakurten dan sailla".

Eta Andima Ibiñagabeitia, Elantxobe'ko euskal idazle argiak: "Trebea duzute Mañariko Errose ipuiñak idazten, gure artean garaienetakoa nik uste oraingo ontan. Ba dizu irudimena eta ba dizu batez ere biotzondoa".

Mañari, izan be, ixiltoki ezkutsua, misteriz betea, ipuiña zadortsutarako egoki-egokia dozu.

EGUBERRI. Jokin Otaegi'rena. 1989. Olerki bilduma, Ruanda'ko Niudo'n ango Arteskolako 6 garren urteko iru marrazkilariak egiñak ditula. Donostia, La Saille Elebitasunerako idazkaritzak. 120 orrialde.

Legazpi'ko umeekin irakasle, ango gaztetxoek maitez eta gomutaz eskeiñiak dira, polito antolatuak, nal pentsamentuz nai euskera gozoz. Ba daki nundik dabillen. Olerkia orixe da gaur eta beti. Horazio'k alan jokutzen eban, Augusto'ren poeta zala; baita Dabid erregeak be.

Euskal olerkariak: ez saiatu bide ez -ezagunez, lenagokoen zidor ezagun miresgarri baiño. Burutapen eder-dotore bat, biotz-zauskada beroz indarturik; orixe besterik ez dozu olerkia, edozeiñek egin daikena, baiña teknikaz.

J. Otaegi'ren **Eguberri** poesi liburu ontako asko ikasi daikegu.

AMESEN ILDOTIK. Olerki sorta. 1989. Zubiri'tar Iñakik idatzia. 127 orrialde. 63 poesi, labur geienak. Zubiri'k ba ditu lendi be poesi-liburuak, baita sariak be jaso ditu; beraz eder-bidetik dabillena dogu. Eder-zelai da ludia, asko zoritxarrez nundik dabillen be ez dakiala bertako bazterrak lorrindu.

Olerkaria poetak iruditzen dauanez, ara ta ona intzirika doan ajena dozu. Egilleak onan:

"Nora zoaz, aiane ori,
arrastiko magalean?
Nora zoaz, erosta ori
gora ta goro naiean?"

Inguruko izakiai itz-egin eta berba eraģitea, noiz ez dogu eder. Zuk baratze-ra edo mendira zoazenean, zugatzai, lorai, ardiai itz egiten. Orrela ez ba dagi-

zu, etzara olerkari; edo ta ez dakizu zeure barruko sentimenak adierazten. Barnea modu askoz da erakusten.

URTIAK JOAN ZAIZKIT. Egille: E Larrinoa. Bizkaiko Foru Aldundiak urtero emoten dauan 1991'ko literatur saria jaso eban. Marrazki batzuk 99 orrialde. Ona aurkibidea: Bertso dilatatuak; Paisaia etenak; Ez zurez ez harriz; Zaldiaren anketan lau marka odol iñostak horma burrunbatsu honezkoneak?

Mamintsuak dituzu tituluak, noski. Eta irakurri zitun baten sen aundiz bota eustan: "Zuk ez dituzula ulertzen? Zeuk dozu errua; bizkortu ta gaurkotu zaitez oraingo literaturaz; barruan daroa guna, ez azalean. Eta nik: "Bizitza guztia eder arraiñetan, eta ezin dausat ezer jaso". Baiña idazleak, ez ete dogu ulertzeko idazten? Eta arek barriro: "Euskaldun barria be ba-nāzu ta..."

Dana dala or dituzu Larrinoaren poesiak, igazko Aldundiaren sariketan doe politaren jabe izana. Zorionak!

IÑIGO LOIOLAKOA. - Iñaki Goikoetxea egille. Gero'k bere Kimu saillean. Bilbao, 1991. 374 orrialde. Eskintza: "Iñaki izena ipini eusten nire aita Eleuteria eta ama Guillermari, maitasun oroigarritz". Bizitza zearka ainbat irudiz da ornidua, liburua jas andiz ipiñirik.

Liburu asko atara dira gure Patroi aundiari buruz, eta orrein artean jarten Aita Goikoetxea euskal idazle langilleak biribildua be. Jose Artetxe'k iñoanez, amaseigarren fededunik, eta M. Unamuno'k beste au, Iñaki deuna dala euskal erriak emondako gizasemerik garaiena. Ondo datorkiguz, beraz, liburu ederrak.

Idazleak autor: "Ni Iñigo Loiolakoaren bizitza bera izan zan gizon eta santuaren iduri egiazkoa irakurlearen begien aurrean jartzen ahalegintzen naiz, adierazpen edo komentarioak irakurlearen baitan itziz".

Gure santuak ixetu beiz, liburu bikain au irakurriaz, euskaldun askoren biotzak. Olantxe.

Jaquin-bide. 1820'an egiña, orain Euskaltzaindiak fotokopiz argitaratua. Orrialde-zenbaki barik. Donostiko Aita Kuputxinoen biblioketan aurkitzen dan ale bakarretik jaso.

Azalpen au diño: "Jaquin-bide, Iritarautia-Españaiko-Neurgidaren, edo Constitucio-berriaren erara adrezatua-Erritarren arguidaraazeko-eta-eskola maisuen usorako-erderatic Eusquerara itzuli du-Apez Vicario On D.J.F.A. Gipuztarrac-1820 urtean".

Lan ausarta, eta batez be izkuntza zelan doan urtez-urte, pizkaka aldatuz, jakin dagigun. Aurrerantzean ba leiteke ainbestekorik ez izatea.

EUSKAL SENAREN MINTZOA. Olaizola'tar Manuel-ek egiña eta Euskerazaintzak argitara emana. Irar-lanak I.G. Valverde, S.A. Guztiz 70 poema ditu bertso liburu onek.

Azken orduko olerkari onek, zentzun ez exkasez, eguneroko gauza xumeak damoskuz bere lanetan. Horazio'k sarri egin oi zuanez. Gurean Lizardi'k erabili euskun gaitasunik ez ba darabil be, atsegingarri jakuzan lanak dira sentimenez eta biotzondoz polito osotuak Zumaiaatarra lez, ango kontu ta ipuiñak eder, bakoitzak bere erria, oitura ta gizasemeak aupatzea txalogarri da-ta.

Oraintsu beste mundurako agur egin euskun Gaztañaga'tar Jesus'ek liburu oneri jarritako itz aurrean, ots, onetxek erritar poetak, naiz atzerrian naiz gurean irakurriagoak dirala, punterengo olerkariak diranen lanak baiño. Urte batzuk dirala nik Madrid'eko izparringi batek ekazan Europa'ko olerkari zar eta gazte askoren lanak irakurri oi nebazan, olerkari barrien artean ain zuzen be, ze joera ebillen jakian naian noski; lau-lauak ziran geienak.

Guk bertsolaritza daukagu eredu legez: pentsamentu bipil, zorrotz eta biotz eragin beraz. Ez gaitezen joan, beraz, lan be iñoiz esan nebanez Ganges alde-ra obeagoren billa. Azter bai bakotzak bere barne-leza, eta ortik jagiko euskal literatur kimu jori, eder biziak.

Azken itz bezela: egilleak ba-daki zer dan bertsogintza; ez dau egundo be utsik egiten, ez azkenean, ez norkeran.

APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA. (30 garren urte-tik 323 garren urtera). Latiegi tar Bixente. Acedo, Nabarra. 1991. 356 orrialde.

Latiegi euskal idazle gotorrak, Eleiz-Edestiari ekiñez damoskun azken liburu-a. Besteak lez mardula eta sakona. Aurreko laurak, argitaratuak, oneik dituzu: "San Iñazioren denporako Eliza", 1447 urtetik 1623'garrenurteraiño-koa; "Denbora berrietako Eliza", 1623'tik 1814ra; "Demokraziaren denporako Eliza", 1814'tik 1914'ra, eta "Gure Denpora auetako Eliza, 1914'tik, edo Lenengo-Gudua asi zanetik 1978'an Jon Paul il zan arte.

Au barriz, eskuetan daukazuna, aurreko laurak lez, Eleiz-edesti zaleak nasai txalotuko dabena. Merezi dabenari zor jakoz txaloak.

Aita Onaindia



„all DON JOXE MIEL BARANDIARAN GARAI BATEKO OROITZAPENAK

Arrinda'tar Anes

Primo de Rivera Jeneralaren agintaritza gogorra 1929'an amaitu zan eta ondoren beste jeneral batena etorri zan, Berenger jaunarena, auteskundeak prestatzeko.

1931'ko Apirillean egin ziran Udaletxeetako ziñegotziak aukeratzeko. España osoan, Errepublikak aldekoak agertu ziran geien. Ori ikustean Alfonso XIII'garrenak, España'tik alde egin eta Erroma'ra erbestaratu zan.

Orrela, errez eta leun, pasa zan España Monarkiatik Errepublikara tirorik botatzeko. Apirillaren 14'eant sortu zan Errepublikak España'n zear; baña Eibar'en, besperan; orregaitik izendatu zuten "Ciudad Ejemplar".

1930'reko Urrillean, Gazteiz'ko Seminario Nagusiari asiera emateko ospakizunetan, Alfonso XIII agertu zan gure artera. Lenengo arriak ipintzea baiño geiago guztatzen zitzaioala egindakoak martxan jartzea, esan zigun.

Seminarioari 1930-31 ikastaroan, sei illebete Errepublikak etorri aurretik, eman zitzaion asiera. Ikastaro artan ezagutu nuen D. José Miguel Barandiaran ataundar apaiz txiki eta melarra, urdailletik gaizki zabiliena. Elektroiak nundik nora jokutzen zuten aretxek erakutzi zigun.

Irakasketari buruzko aren eginkizuna, ordea, ez zan Fisika eta Kimiarekin agortzen. Ostegunero Historia de las Religiones izaten genduen ikasgai, eta atal orretan gogoko zitzaion (baita guri ere) Euskalerriko Erligio Zaarraren sasi-jainkoen berri eman izatea: Mari'renak, koba-zuloetako aztikerienak eta abar.

"Sensim sine sensu" eta ustekabean, gure arbasoen aztarnabidean ipiñi ginduzen: bai leize-baztarretan astutakoenenak, bai euskaldunen buru-ganbarretan gordeta zeudenenenak ere. Bi bide daude aztarna oiek billatzeko: Arkeologi bidea eta Etnologi bidea. Bietatik abiatu ginduzen Ataun'go baserritar arek.

"Oñen bitartez ikasi bear da" esan oi zigun, eta, guretzako eredu, udara guztian mendirik mendi eta koba-zulotik koba-zulora ibilli oi zan. Gure mendietan asterako, Europa'n zear ere makiña bat pausu eman zitun, bere burua argitzen, eta besteen lanak ezagutzen...

Zoragarria zan arekin izketaldean jardutea; aldiko leio bat irikitzen zizun buruan, milla arazoeri buruzko leioak.

Leize-zuloetan gure arbasoek utzitako jan-ondokiñak, lanabesak, marrazki eta margoak, oiek danak, gure aurrekoen berri ematen digute eta oien billa saiatu zan gure begien aurrean.

Baña, D. Jose Migel'en garaiko euskaldunen bizi-eran eta beuroen buru-moldegietan, ainbat eta ainbat berri zeuden gordeta, gizaldietan zear, millaka eta millaka urteetan zear bildutakoak eta gureraiño eldu ziranak. Oiek danak galtzeko arriskuan zeudelako, eurak biltzen indar oraindik aundiagokin ekin zion.

Arrizko eta ezurrezko erreusak garrantzi aundia ba'dute Euskalerraren historia ezagutzeko, euskaldunen buruetan geratzen ziranak (baserrietan gizaldiz-gizaldi bildu eta gordeak), oietzek bai zutela benetako garrantzia. D. Jose Migel'en lan ori aukera aukerakoa izan da. Bera lan orretan asi zanean, baserrietan euren aurrekoekin etenak asita zeuden, baña arrobia or zegoen oraindik baserri askotan gordea.

Oiek danak gordetzen zitun kutxa, bizirik ziraun oraindik. Arrezkero izan da etenik. Jose Miel, ordea, baserri bateko semea izanik, egun batez, altxorran zegoen konturatu zan, eta bere etxetik ekin zion lanari. Bere etxetik eta bere erritik.

Baña, bilketa-lanak ez ziran bere etxean eta bere errian amaitu, Euskalerrri osora zabaldu zitun, eta, aberastasan oiek biltzen, iraun zuen eriotzararte.

Aren gureganako irakaskintza ez zan teori utsean gelditzen: lanean ipintzen ginduzen, ikerketak egiten: Gabonari buruzko oiturak; argiari, eguzkiari, illargiari eta suari buruzko itzak; sorgin-siniskeriak, ipuiak eta esaera zaarrak... Orra zenbat ikerketa-gai.

Gaskez'ko Apaizgaitegian (orrela esaten giñon Seminarioari) seireun gazte bizi giñan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik joanak. Toki berezia ikerketak egiteko eta egin-erazteko.

Gabonetan, opor-aldirako, galdera sail bat prestatzen zigun eta guk, talde-txo batek, apaizgaien artean zabaldu, Gabon-ondoren biltzeko. Orduan ikasi genduen enketa bateri zenbatek erantzuten dion: EUNETIK amar edo amabi erantzun bildu ezker, zorionekoak giñan. Alaz ere, erantzun moltso bat biltzen genduan Don Jose Migele'eri itzultzeko.

– Zur nola irauntzen dezu emen Seminarioan preso? Galdetu giñun bein.

– Udaran iru illebeta ditudalako mendian ibiltzeko.

Alaxe zan izan ere. Gogoratzen naiz udarako oporraldi batean Urkiola'n San Antonio'ri bederatzi urrena egiten ari giñala geure gurasoekin, nola jetxi giñan Atxarte inguruko koba-zulo batera, an Don José Migel zegoela jakin genduanean.

Leize-atakan topa genduen, lau korapillozko pañuelo zuria buruan, buzo zikinxamarra soñean, lurra galbaian astintzen, ezurtxo eta sukarrri zatien billa...

Eta zer esango degu Anuario de Eusko-Folklore oiei buruz?

1921'ean asi zitun argitaratzen. Urtean bat. Ikerketa guztien bilduma ziran gure gerra negargarria sortu zan arte. Lan orretan apaizak eta apaizgaiak lagundu zioten geien. Eta oiek or daude betirako galduko ziran siniste eta oituraz beterik. Gordeta zegoen altxorra, guztien eskuetan ipiñi zigun.

Seminario batean, urteetan zear, ikasi eta aztertu bear diran gaiak asko baiño geiago dira eta Don Jose Migele'n ikuspegia oso zan zabala, eta ez zan, iñolaz ere, Arkeologi eta Etnologian mugatzen.

Euskeraren arloan D. Manuel Lekuona zeukan bere alboan eta bien artean osatzen zuten Seminarioan Euskalerrari buruzko lanak. Oiek, ordea, eurenzako arazoak ziran, baña ez benetako Seminario-lanak. Barandiaran erretore ordeko zan eta Lekuona prefekto; biak ziran irakasle. Nik aitaturako ekiteak, oiek ordutik kanpora egitekoak ziran eta ez euren eginbear berezia.

Mutillak lanerako presta zitezen aldizkari bateri asiera eman zion, GYMNASIUM izenekoa. Zacarías Martínez Núñez, agustindar jakintsua, zan Gazteiz-Elizbarrutiko Gotzaia: (Revista Bimensual de Iniciación Científico Literaria de los seminaristas de la Diócesis de Vitoria). Orrela dio izenburuaren ondoren. Eta gero: Año 1 Vitoria, Enero-Febrero de 1927. Num. 1.

D. Jose Migele'en izenik ez da bein ere agertuko, baña berak prestatutako apaizgaiak idatziko digute maixuaren agotik entzun-zutena.

Urtean sei ale. 1927'an asi eta 1932'ko udaran amaitu: Bost urte t'erdi: 34 aldizkari.

Lenengo alearen itz-aurreak, beste gauza askoren artean, au ere badio:

"No pretendemos ofrecer a los lectores una revista de altos vuelos, sino más bien brindar a nuestros queridos seminaristas con unas páginas familiares, donde empiecen ellos a concretar sus conceptos sobre las diversas materias que estudian".

Gero datozte, lenengo alean, 80 orrialde. Ona zertzuk diran:

Erderaz:

El Método en las Ciencias. Egillea, Secundino de Rezola, dicácono. José Rezola, lenengo Eusko-Jaurlaritzaren ministrariaren anaia. De Historia de las Religiones. Egillea, Eulogio de Gorostiaga, diácono. Oar batean onela dio: Barandiaran: Historia del Hombre Primitivo, en preparación. Sección Misional. Egillea, Angel Sagarminaga, gerora España'ko Misio arazoetan buru izango zana.

Bigarren alean:

Un aspecto de la transición ideológica contemporánea. Egillea, Joaquín Goikoetxeaundia, apaizgaia. Apaizen artean oso ezaguna gaur egun. La Moral y la Religión. Egillea, Juan Bautista Otaegi apaizgaia.

Irugarren alean:

El Criterio Teleológico en el conocimiento de Dios. Egillea, Jacinto de Elgarresta, apaizgaia. La Teosofía. Egillea, Pedro Anitua, apaizgaia, Gazteiz Elizbarrutiko Misioen buru izango zana. Dos lecciones de Geología y Prehistoria: 1. En el monte de Santa Cruz de Olarizu. 2. En las Conchas de Arganzón y en Iruña (Alava). Egillea, Casimiro Saralegi, apaizgaia. Gaur-egun naiko zarata atera du, bere garaiko Fanco aztertzen duen liburuakin.

Laugarren alean:

Valor de las Ideas Religiosas. Egillea, Bernardino G. de Albéniz, apaizgaia. La Irreligión y la Blasfemia. Egillea, Jesús Cerio, apaizgaia. La Escuela de Durkheim y la Religión. Egillea, Jesús Romero, apaizgaia. El Primer Obispo Japonés. Egillea, Roberto Aguirre, apaizgaia. Errenderi'ko erretorea izango

zana. Estudios del Hombre Primitivo en Saturrarán. En las cuevas de Arrigorrieta. Egillea, Ramón de Erce, apaizgaia, gero STV'koekin lan egiteko Manilas aldean ibilli zana gerra aurretik.

Bosgarren alean:

Notas criteriológicas. Orientaciones equivocadas. Egillea, Miguel de Urta-sun. Apuntes acerca de los Rotarios. Egillea, J. I. de Otaegi, apaizgaia.

Seigarrenean:

La Religión del Hombre Primitivo según los datos actuales. Egillea, Constantino Laskibar, apaizgaia. La Irreligión y la Blasfemia. Egillea, F. de Isasi, apaizgaia. San Juan de la Cruz. Doctor Místico. Egillea, Joaquín Goikoetxe-aundia, apaizgaia.

Auek izan dira 1927'garren urtean erderaz egindako lanen artean, batzuek.

Euskeraz egindakoak ogei lan dira.

Euskeraz: De Re Catechetica. Egillea, Patxi Iraeta. Atsegin goxua (olerkia). Egillea, Anixeto Zugazti, apaizgaia, gerora euskal-idazle jatorra. Pakea lurrean. Egillea, Anjel Albisu, apaizgaia, gero frankotarrek, apaiz zalarik, Erreterian'era ilko zutena. Bere ikasketaren bosgarren urtean egindako lana da.

Bigarren alean:

Zertarako da Kirstau-ikasbidea? Egillea, (manuel Madariaga, apaizgaia. Olerkia. Egillea, Anixeto Zugazti, apaizgaia. Apaizgaiaren ama. Egillea, Iñazio Larrañaga, apaizgaia.

Irugarren alean:

De re Catechetica. Egillea, Patxi Iraeta, apaizgaia. Olerkia. Egillea, Praisko Garmendia. Neure semearen eskuak. Egillea, L.k apaizgaia.

Laugarren alean:

Zergaitik sinisten dozu? Egillea, Lanziogo'tik. Maite izatearen indarra. Egillea, L.k. Olerkia. Egillea, Meliton Sarasua.

Bosgarren alean:

Maite izatearen indarra. L.K. Bideak Ikasten. Egillea, Martín Lekuona, D. Manuel'en anaia, Erreterian apaiz zegoela, Frakotarrek ilko zutena, Anjel albisu'rekin batera.

Seigarrenean:

De Re Catechetica. Egillea, L.k. Olerkia, Meliton Sarasua. Jesus'en jaiot-etxie. Egillea, L.I. Araba Menditik. Egillea, Patxi.

Apaizgaiek egindako aldezkaria zan; baña apaizgaien itzalean D. Jose Migel zebillen lanean, idazleak prestatzen; D. Manuel, berriz, euskera-gaie-tan

Orrela irauan zuan 1932'an, udaran, D. Mateo Mujika'k ixil-arazi zuen arte. Baziran Eleizbarrutian orrelako lanak gogoko ez zituztenak eta auek jo zuten, bein eta berriz, Gotzaiarengana eta Gotzaia aien eskarietara makurtu egin zan.

Baña, Don Jose Migele'ek atera-bide bat billatu zuen eta IDEARIUM izeneko beste aldizkaria sortu zuen, irakasleak idazteko apaizgaiantzat. Gure guzto-koa, ordea, GYMNASIUM zan, ez IDEARIUM eta onek ez zuen luzaropen aundirik izan.

GYMNASIUM'en agertu ziran lan sakonak, ez ziran berez sortu, perretxi-kuen antzera. Bazuten beuren arrazoi-bidea. Taldeak zeuzkan antolatuta gure

irakasleak jakintza-gaier buruzkoak eta talde oien kopuruari Laboratorios GYMNASIUM izena ipiñi zien. Lau taldeak onek ziran: Sección de Filosofía, Sección de Etnología Moderna, Sección de Psicología Colectiva eta Sección de Sociología. Talde bakoitzeko liburuska bat argitara zuen 1930'ean eta liburuska oiek prestatzeko itz-aurrean onela dio:

"Su finalidad es entrenar a los alumnos en funciones varias. En seguir de cerca el pensamiento filosófico y teológico contemporáneos. En conocer los motivos ideológicos, las nuevas fermentaciones sociales y los problemas de orden religioso y social de que se halla preñada la atmósfera moral de nuestro pueblo...

A tales ensayos corresponden muchos artículos de nuestra revista Gimnasium, algunos de los cuales, recopilados en folletos vuelven a salir a la luz desde hoy". Eta ordoren datoz lanak egin dituzten apaizgaien izenak: Ogeítabat izen, lenengoa Roberto Agirre eta aizkena Jose Zunzunegi, biak oso ezagunak gure artean. Danen ondoren, itz-aurrearen egilea: J.M. de B.

Orra zein gelditzen dan itzalean.

Filosofiari buruz amar lan datoz. Ona danen zerrenda:

La Metafísica en las ciencias positivas.

La Filosofía y las Ciencias.

La Filosofía de las Ciencias.

Estructura de los cuerpos.

Valor del conocimiento humano.

Lo racional, lo irracional y lo supra-racional.

La racionalidad del mundo.

El mundo y su estructura teleológica.

El sentido de la vida.

La relatividad del tiempo.

Etnolojiari buruz, zazpi:

La Etnología y sus orientaciones.

Orientación y Método de la Etnología Moderna.

Factores de la vida étnica.

Los ciclos culturales y sus áreas.

Edad relativa de los ciclos culturales.

La mentalidad del hombre primitivo.

La idea de Dios y las instituciones religiosas en los pueblos primitivos.

Alkarteko Sikolojiari buruz, bederatz:

Las tendencias humanas en la vida colectiva.

El instinto gregario y la vida social.

Conservatismo y plasticidad.

La percepción como producto colectivo.

El influjo social en nuestra memoria.

La colectividad y nuestros estados afectivos.

Estudio psicológico del contacto de los pueblos.

Cómo se trasmite una cultura.

Desarrollo y decadencia de una cultura.

Soziolojiari buruz, amairu:
Morfología social.
Carácter y origen de las formas sociales.
Las instituciones.
La división del trabajo.
Función social de la propiedad.
La enseñanza y los derechos paternos.
La sociedad como estímulo.
La economía y la vida cultural.
La familia.
Nación y Estado.
El Estado y los individuos.
Relación entre la Religión, la Ciencia y el Arte.
Religión y Moral.

Lan oiek guztiak 1930'garren urtean argitaratu ziran; baña, aurretik egiñak zeuden. Eta, eskolako lanetatik aparte egiñak.

Emen ikusten degu zer mundu zabalean zebillen Seminarioko irakasle ataundarraren burua. Bere aizken urteetan bizirik ikusi deguna, aiz-zuloetatik irtegarabeko aguretxoa zirudian.

Azkorentzako orixe izan da Barandiaran'go Joxe Miel: sekula beste pentsamenturik izan ez duen agure paketsua; Prehistoriako laño-artean bizi izan dana... Ori, orde, Don Jose Migele'ren gezurrezko irudia da.

Don Jose Migel de Barandiaran (aizkenean, Barandiarango Joxe Miel) kulturaren olatu guztien puntaren puntan, eta aparretan, bizi izan dan gizakia degu eta irudi ori itzaldu egin dala iruditzen zait gure errian.

Egia da Etnologi eta Arkeologi arloan Euskalerrria'ri, bear bezela eskertu eziñeko mesedea egin diola bere bizitzan; baña, orrek ez du esan nai, bere "nirvana" orretan, bertan-goxo bizi izan zanik, bere barnean beste ardurarik izan ez ba'lu bezala.

Don Jose Migel eta Don Manuel'en babesean bizi izan giñan 1936'garren-go udarako oporaldietararte Gazteiz'ko Apaizgaitegian. Don Jose Migel'en talde auetatik kanpora, bazan Kardaberaz Akademia ere, euskera gure artean ikasi eta idazteko... Zenbat euskal-idazle sortu ziran Akademia artatik... Historia-taldea ere bagenduen D. Manuel'en estutik. Talde artakoa zan Andres Eli-seo Mañarikua, gerora Bizkaiko Cronista Oficial izendatuko zutena...

Gerra sortu zanean, orduantxe amaitu ziran gure ekintza guztiak: Don Jose Migel erbestera iges eginda, (orduan arrapatu izan ba'lute, gaur egun ez genduen bera gogoratzen, lanik izango) Don Manuel ere erbesteratua eta luzaroan izkutuan gordota... Gu, berriz, apaizgaiok, bi frentetan sakabanaturik...

Gero, arlosa aundi baten azpian zapalduarik... Urte asko pasa ondoren, agertu zan berriro D. Jose Migel gure artera eta ekin zion betiko lanari. Orain ez zuen apaizgairik inguruan; berak, orde, laguntzailleak sortu zitun lan berezi ura aurera eraman aal izateko. Euskalerrri osoa izan da bere zartzaroaren testigu eta lekuko eta gure maixuaren lan guztien kopurua argira emana ikusi degu. Artu dezala gure esker ona eta Zeruan bego.



**Jose Miel Barandiaran
betiko argira joan zaigu.**



**Anes eta Joxe Miel "Sara" etxean:
19-XIII-1970. Atun-San Gregorio.**

SECCIÓN LITERARIA

Arantzazu

(Oroipenak)

<i>Aizkoñi-mendi, bizkar galantaz in arkaitz zototeez erp ñnl... ti rbi-zela in, ota lorufr», ta helar goxoz berdiña!...</i>	<i>Ortxen zande Zu, lrahitxu artan, Aitaran Uso lazтана... Ortxen, Maria, Zeruko Efégin fa pekatarien Ama.</i>
<i>Bion ondoan A loña-mendi, egutera-gain argia, txila , ota-motz, aritz, pago la eloiñ zuria jantzia!...</i>	<i>Ox zande, Ama, asparen gabe, gori begirri zorutzen; gure miñentzat poz ofoegiñalo Jaunari beti eskatzen.</i>
<i>Ortxe, A loñ n, elofara u izan, usotxn batel, ;azia, ~re, hai, daga eokuldun danok ain maite degun kabia.</i>	<i>Olla, za, emen lareun semetsxo Zu E eg' .ztat gorutzen: zurear gera; ea utzi, aien, zure mendetik aldatzeo.</i>

Lañne.a 5'gn. .neko.
PRAIXKO GARMENDIA
Gor n<atata l.

1927-IV



SECCIÓN LITERARIA

Be en go Artzaiak

<i>—Otee alaiki, artzaiak, Nora zuzate?</i>	<i>a Zera eta munduaren .Jaun Egdea</i>
<i>Aten, zer gergatutzen dan Esaiguzute.</i>	<i>Guregatiloan atela Gizon sortzea bere arrear</i>
<i>— <A laif, gaitezen! .layo da Belen'en</i>	<i>Estalpe batean!..</i>
<i>Agindataloo Necias, Jeans Nazarena.</i>	<i>Gurtu ta gora dezagun Ara joateanlsl</i>
<i>nEz bildurtu, —esan digu Ajase., batek _</i>	<i>A rtzai ta aingeruekin bat Orain egiñik</i>
<i>Beri edet pozkatia Dakarkizutet:</i>	<i>Danok abestu dezagun Biotz-batendik:</i>
<i>Zoazte Relea'.</i>	<i><Aintza txit ngari</i>
<i>Aotik edetena</i>	<i>Zeruan fauna'ri</i>
<i>A., nnr l, ituko dezute</i>	<i>Eta latean pakea</i>
<i>Abkan etzana.</i>	<i>Gizan amarla.</i>

**D. Jose Migel'ek zuzendutako GYMNASIUM
aldizkarian ateratako olerkia. 1927-XII'an.
Meliton Sarasua 7'garren ikastaroan.**

P68o, opóia'1 11 urteko
MELITON SARASUAK

j,91710 XIIon.

EUSKAL ABOSTEGIA ETA ONEN OGUZKATZEA MUNGIALDE, BERMEO TA ONDARROA'n

EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIRA SARTZEKO ITZALDIA

**Izlaria: OLAZAR'tar Martin
Aurkezlea: Zubikarai'tar Augustin
Erantzulea: Laitegi'tar Bixente**

Mungia'n, 1992-4-25

Jaun andreak:

Urte batzuk dira "Lauxaeta" ren omenez emen batu giñala.

Gaur be emen gara barriro.

Zein, nor garean?

Euskerazaintzakoak.

Euskerazaintza zer dan?

Akademi bat. Erri euskeraren aldeko akademia. Ba dira amabi urtetik gora sortua dala. Sortu eta legeztatua, aintzat artua, baiña egia esateko, gitxi lagundua.

Alaz ere lan egiten diardugu eta gaur be lanera etorri gara.

Zegaitik Mungijara eta ez beste leku batera?

Ara: Euskerazaintzak, beste Akademiak lez, bere araudia dauka, bere erregelak, bere bete bearrak.

Eta betebearretan sartzen da Akademien oitura bat: Norbait akademiku izentatzen danean, aukeratzen danean, beartuta lez geratzen da itzaldi bat egitera.

Guk, egia esateko, ez dogu oraiñarte orrelakorik egin. Taldeko lanak eroaten dauskuez gure illeroko batzarretako orduak. Izan be zeregin lez artzen dogu Euskerazaintzako izatea, eta ez onore lez.

Baiña ez zeregin ori aztuta euki dogulako.

Igaz, azken aldian, ordurarte gure lendakari zintzo izan zan Lino Akesolo Aita, ainbat gauzetan lanpetuta ibiliarren, gertu zan itzaldi ori egitera. Erabagi gendun noiz egin. Baiña gizona dabil eta Jaunak darabil, diño esaera zar zurrak. Alaz eta ziur nago Alta Lino arduratuko dala zeruetatik Euskerazaintzari argi egiten.

Aren utsunea ordezkatzeko gure artean egin genduzan auteskundetan Olazar dar Martin jauna aukeratu gendun lendakari, eta au, eleizako gauzetan lez euskerakoetan be zeatza izan gura dauana dan lez, lenengotik gertu zan araudiaren aginduetara makurtzera eta orra gaur zeregin ori bete naian gure aurrean.

Eta Mungia'ra etorteko aitzaki on bi euki doguz: Bat, bere itzaldiaren gaia, geien bat Mungian, Mungiko euskeran oiñarritzen dalako. Bera lurralde onetako izanik ondo ezagutzen daualako emengo euskeraren bereiztasuna. Ez bakarrik emengoa. Gaia zabalago egitearren, Mungia, Bermeo eta Ondarruko euskerari buruz izango da.

Au da: Euskeraren aozkatze eta aboskatzea Mungia, Bermeo eta Ondarro'an. Au da, euskeraren fonetika eta fonolojia.

Errí bitan beintzat, Mungia eta Bermeo'n egona da. Ezin ukatu gaía bizi-bizi ezagutzen dauanik.

Bera inguru onetako izatea eta gaur bertako parroko izateak be aupatu gaitu erri onetako Kultur etxe eder onetan, Akademi ikastaroa deitu geinkion jai au emen egitera.

Ortik kanpora don Martin nor dan?

Nik aurrez goratu eta txalotzeak ez dauka grazirik. Entzun berari ta gero esango dozue zelako santua dan ta zelako kanpaia jo bear jakon.

Origaitik nik, labur-labur eta konfiantzaz eskatuko dautsat: On Martin, ekin.

ITZALDIA NONDI K NORA DOAN

Sarrera

1.– Abotsak zelan sortzen diran

- 1.1. Aboskiña.
- 1.2. Dunduridunak eta dunduribakoak.
- 1.3. Bakartiak eta lagundunak.
- 1.4. Bakartiak: atzekoak, erdikoak, aurrekoak, zabalak eta itxiak.
- 1.5. Lagundun motak: Non oguzkatzen diran kontuan dala.
- 1.6. Zelan agozkatzen diran kontuan dala.

2.– Abots jatorrak eta abots utsak.

3.– Abots bakarrak itxitea

- 3.1. Mugatzaillea ipiñikera.
- 3.2. Abots bakar bi jarraian diranean.
- 3.3. Abokaldi batetik bestera itxitea (metafonia).

4.– Abots lagunduen aldakuntzak

- 4.1. Abogaiñeratzea.
- 4.2. Gogorak gozotzea.
- 4.3. Gozoak gogortzea.
- 4.4. Surreratzea.
- 4.5. Galtzea.
- 4.6. Antzeratzea.

5.– Bermeo'ko esaldi batzuren azterketea

"etxako Kose ainbeste gusteten. Gurau dotzu arek mariñu bategaz ezkondu. Lapurtxuenekuegaz eiñ dseu domekan jantzaldi bat...da ilusiñoz beterik dako.

Aregaz ez pentsetie deko. Nobidsie dako arek kanpoko erridsen".

SARRERA

JAUN ANDREOK:

Guk egin al doguzan baiño askoz gaitxagoak diran gauzak egiten dauz izadiak, eta erreztasun aundiaz egin be. Guk ez dakigu atomo edo kizi bat zelan egin, baiña izadian eginda aurkitzen doguz. Oneitariko bat da, zalantza barik, izkuntza eta izkuntza-barruan oguzkerea: Ama batek, eta umearen inguruan diran senideak alegin aundiak egiten dabez umeari berba egiten irakasteko, baiña irakasle oneik ez dakie eurak zelan giten daben berba, abots bakoitxa aterateko zer egin bear daben edo zer egiten daben.

Gaurko itzaldi onetan lenengo ekiñaldia onetarako izango da, abotsak sortzeko zer egiten dogun, labur-labur aztertzea. Gero abotsak zenbat eratakoak diran esango dogu. Orrelan abots-sortze edo fonetikaren ikuspegi labur bat izango dugu.

Egia esan, gaur aztertzeraz sartzen garan arazo au Euskaldunen artean oso gitxi aztertua izan da eta itzaldi onetan agertuko dan lez, gai oso jakingarria ta pozgarria da.

Entzuleen artean arlo onetan jakitun dan iñor ba'lego, bitarteetan izango doguzan alkar izketak alkar aberasteko izango dira.

Gero, bigarren zatian, Mungialde, Bermeo eta Ondarroa kontuan doguzala, erririk erri diran aldakuntzak aztertuko doguz. Arlo onetan ez dot uste nik egin dodan antzeko azterketarik iñok egin dauanik, baiña, zuek, geienok, erri oneitako seme-alabak zarien ezkerok, edozein unetan esan al izango daustazue: Ori ez da orrelan, gure errian ez da ori orrelan oguzkatzen. Eta ba-leiteke ori diñoana zuzen egotea eta ni oker, baiña erririk erri entzuten ibillia naz.

Itzaldi onegaz norantza goazen edo zer lortu nai dodan esango daustazue. Nire erantzuna oso erreza da: Gauzak zelan esaten doguzan eta zergaitik orrelan esaten doguzan jakin.

Erririk erri, baserririk baserri, esaldiak artzen ibilli nintzanean, olako zerbait esaten eusten: "Guk olan esaten dogu, baiña guk ez dakigu euskeraz ondo egiten. Berorrek zuzendu begiz". Eta ikusiko dozuen lez, arau argiak eta ziu-rak betetuz egiten eben berba, eurak be ez ekiezan arauak.

Nik uste dot geuk beteten doguzan arauak zeintzuk diran jakitea, gauza egokia dala eta orixe izango da egingo dogun egiteko bat.

Lur-irudi edo mapa batzuk ipiñi dodaz zuen eskuetan. Ez dira erti-lanak, marrazketa eta margozketa-lanetan ez jakiña dan batek egindako zirriborroak baiño. Dana dala, esango doguna ulertzeko lagungarri izango dozuez.

Zati bi izango dauz ba berbaldi onek: Abotsak zelan sortzen diran eta Mungialdean abots orreik zelan aldatzen diran. Bitartean atsedeen-alditxu bat egingo dogu.

1.– ABOTSAK ZELAN SORTZEN DIRAN

Gai au egokiro azaltzeko jakituri-arlo sakon eta zabal batera sartu bearko geunke eta ori eziña litzake onen lako itzaldi labur baten, baiña jakingarri azaleko batzuk emon bear dira, esaten doguzanak ulertzeko.

1.1. Aboskiña.

Gure abotsak aterateko, izadiak abos-gaillu eder eta onuragarri bat emon dausku.

Abotsaren dunduria sortzeko abots-ariak daukaguz eta oneik zokodi bat osotzen dabe, iru arik osotua eta zokodi irukoitzaren erara atondua: Dunduria, bakoitxak berea dau, Abots-gailluak be bardiñak ez diralako: Batzutan zokodi luze da beste batzutan zapalagoa, eta zelako zokodia, alako abotsa izaten da.

Gaiñera, zokodi ori norberaren alegiñez luzatu egin leike eta orduan goiko abotsa sortzen da, edo zapaldu, eta orduan abotsak zolitasuna galtzen dau.

Abots-gaillu au oso egokia ta ederra da, beste edozein eres-gaillu baiño ederragoa.

1.2. Dunduridunak / Dunduribakoak

Abotsak atera nai doguzanean, batzutan abots-ariak erabilliaz egiten dogu ori, eta beste batzutan abots-ariak erabilli barik.

Abots-ariak erabilliaz ateraten doguzan abotsak, dunduridunak dira: Bakartiak edo bokalak guztiak eta lagundun edo konsonante asko.

Argiago esateko: Arnasea aboskiñetik igaro barik ateraten dogunean, ez dago dunduririk, baiña arnasa ori aboskiñetik igaroten ba'da, orduan dunduria dago.

Dunduri orreri oztoporik ipiñi ezik, eztarritik, agotik (edo suretik) eta ezpantetik bidea zabalik aurkitzen ba'dau, dunduria urtengo da. Beste batzutan, dunduri orrerik oztopoa ipiñiko jako. Or sortuko da lagundua dan abotsa.

1.3. Bakartiak eta lagundunak

Abotsen artean anxiñatik artu dogun bereizkuntza da, batzui bakartiak edo bokalak eta beste batzui lagundunak edo konsonanteak esatea. Bereizkuntza au ez da trebebedez oso zuzena. Lagundunak deritxogun batzuk bakartiak baiño dundurizko bakartasun geaiago daukelako.

Dana dala, bereizkuntza ori onartuta jarraituko dogu.

Zer egiten dogu bakartia oguzkatzeko? Abots-bideak zabal-zabalik itzi.

Nondik orduan ain euskaldunak eta jatorrak diran bost abots bakartiak?

Gaztelereak be euskeratik artu dauzala diño Menendez Pidal'ek bost abots bakarti oneik baiño ez izatea.

1.4. Bakartiak: atzekoak, erdikoak, aurrekoak. Zabalak eta itxiak.

Abots-bidea zabal-zabalik izan arren, /a/ abotsak ezarrían edo atzekaldian dauka bere leku berezia, /e/k, ostera, apur bat aurrerago, /i/ abo-gaiñean kokatzen da eta orregaitik da abots-bakar iraultzaillea, /o/ aurrean kokatzen da eta /u/ aurrerago.

Eta abots-bidea zabalagoa da /a/ esateko, itxiagoa, urregorik urregora, /e/ ta /i/ esateko eta aurrean /u/ esateko itxiagoa /o/ esateko baiño.

Orrelan sortzen dira abots bakarti ezbarðiñak: atzekoak eta aurrekoak, zabalak eta itxiak.

1.5. Lagundun-motak: non oguzkatzen diran kontuan dala.

Len esan dogu, lagundun abotsak sortzeko abots-bidea ez dala zabalik geratzen, barrutik datorren arnaseari oztopo bat ipinten jako, eta ostopoa non ipinten dan, ango abotsak sortuko dira.

Batzutan ostopoa ezarrían dago eta an sortzen da abotsa: /k/, /g/, /j/, /h/?

Ezarría zabalik dala oztopoa surrean ipinten ba'da, abots surreratua sortuko da, esaterako /m/, /n/, /ñ/.

Surrerako bidea debekatu eta arnasea abo-gaiñera ba'dator, an sortuko da abotsa, esaterako /ñ/, /ll/, /tx/, /tze/

Abo-gaiñea zabalik dala oztopoa agin-obian edo agiñetan ipinten ba'da, abotsak toki oneitan sortuko dira, esaterako /d/, /t/, emen euskereari /o/ falta jako.

Azkenez, agin eta ezpanen artean eta ezpan bien erdian ipinten ba'da oztopa, emen sortuko da abotsa: /b/, /p/, /m/.

Abots bi dagoz albotikoak be esaten jakenak, arnasea edo aizea miñaren alboetatik urteten diralako, /l/ eta /ll/ dira oneik.

1.6. Zelan aboskatzen diran kontuan dala.

Agertu dogu labur, abotsak non oguzkatzen dira. Baiña olako toki bakoi-txean, geienetan, iru abots daukaguz, eta zelan bereizten dira?

Arnasari edo aizeari bidea eragozteko era ezbarðiñak dagoz. Batzutan bidea zearo itxiten da, eta orduan gogorak edo "oklusibak" dira, esaterako, ezarrían /k/, abosabaian /tse/, agiñetan /t/, ezpañetan /p/

Beste batzutan oso-osoan ez da itxiten abots-bidea eta orduan abots biguna edo gozoa sortzen da: Eztarriak /g/, ago-gaiñean /je/, ezpanetan /b/.

Iñoz oso-osoan zabalik geratzen da eta abots iguziak sortzen dira: Eztarrian /j/, abo-sabaian /j/ ezpañetan /f/.

Ba-dira abots bi dardara daukenak, dardara au agin obian izaten da: /r/ eta /rr/ dira, eta iparraldean abots au eztarriatu egiten da.

Beste abots batzui txistulariak esaten jake: /s/, /tz/.

Esandakoak kontuan dirala, abots bakoitxa onelan zeaztu geinke: /a/ bakartia, atzekoa, idegia.

/b/ Ezpanetakoa, dunduriduna, gozoa (iguzia edo itxia).
 /d/ agiñetakoa, dunduriduna, gozoa.
 /e/ bakartia, atzekoa, idegia.
 /f/ agin-ezpanetakoa, iguzia, dunduribakoa.
 /g/ eztarikoa, dunduriduna, gozoa
 /i/ bakartia, abo-gaiñekoa, itxia.
 /j/ eztarikoa, iguzia, dunduribakoa.
 /k/ eztarikoa, itxia, dunduribakoa.
 /l/ agin-obikoa, albotikoa, dunduriduna, iguzia.
 /ll/ abo-gaiñekoa, albotikoa, dunduriduna.
 /m/ ezpanetakoa, dunduriduna, surreratua.
 /n/ agin obikoa, dunduriduna, surreratua.
 /o/ bakartia, aurrekoa, zabala.
 /p/ ezpanetakoa, gogorra, dunduribakoa.
 /r/ agin-obikoa, dunduriduna, dardara bakarduna.
 /rr/ agin-obikoa, dunduriduna, dardara askoduna.
 /s/ ain-obikoa, igusia, txistularia.
 /t/ agiñetakoa, gogorra, dunduribakoa.
 /u/ bakartia, aurrekoa itxia.
 /y/ abo-gaiñekoa, dunduriduna, gogorra.
 /z/ agin-obikoa, txistularia, iguzia, abo-gaiñeratua, dunduribakoa.
 /tz/ abogaiñekoa, erdi-iguzia, dunduribakoa.
 /ts/ Gipuzkoan bereziten da eta /tz/ baiño abo-gaiñerago oguzten da.
 /h/ iparraldean oguzten da eta /j/ ren antzekoa da, ez bardiña.
 /j/ Bizkaian asko erabilten da eta abo-gaiñekoa da, dunduriduna, iguzia.
 /tx/ ago-gaiñekoa, itxia, dunduribakoa, erdi txistularia.

2.– Abots jatorrak eta abots utsak.


Abots jatorra edo "fonema" berau aldatu ezkerro berbearen esan-naia aldatzen dauana da: Ogia/obia ez dauke esan-nai bardiña orduan, /g/ ta /b/ abots jatorrak edo fonemak dira. Pakea/bakea esangura bardiña dauke, orduan or /b/, /p/'ren alofona da edo abots utsa da. Etxea/etxie ez da esan naia aldatzen, orduan i et e alofonak dira.

Zergaitik egiten ete dira aldakuntza orrek, edo bardin dana, zergaitik sortzen dira alofonak? Euskereak alofon asko dauz, batez be Bizkai'koak. Eta ori onexegaitik jazoten dala dirudi: Abotsak erabilliaz gastau egiten diralako edo berbak oguzkatzeko erreztasuna billatzen dalako. Ezgatoz esatea baiño errezagoa da ezkatoz esatea eta anko baiño errezago esaten da ango, .etxea baiño errezago etxie edo etxi.

Gaurko gure berbaldiaren muiña alofon oneik aztertzea izango da, oiñarri lez Mungialdeko euskerea artuko dogu. Arrigarria arlo onetan zazpi kilometroko inguruan dagoan arauen aberastasuna. Eta Alofon oneik daroen aurrerapena obeto argitzeko, Bermeo ta Ondarroa'n egiten dan euskerea be pizka bat aztertuko dogu.




MUNGIALDEKO OGUZKERAK



ABOTS- BAKARRAK IXTEA

Mugatzaillea ipiñikeran:

-aa -ea -ee -e
-aa -ea -ia -ie -li -i
 -ea ||||| -e I -ja a -ie ==



ABOTS - BAKARRAK IXTEA

mugatzaillea ipiñike an:

ja -ie MIN -i a- id se

3.– Abots bakarrark itxitea

Abots bakarrak errez aldatzen dira, izan leiteke, bear ba'da, ondo oguzkatzen alegin gitxi egiten dogulako. Arlo onetan iru jokabide aztertuko dogu. Mugatzailea ipiñikeran, abots bakar bi jarraian diranean eta metafofia eta abokaldirik abokaldira itxiten danean.

3.1. Mugatzailea ipiñikeran

Euskerearen mugatzaile orokorra ta nagusia "a" da. Eta "a" au oso aldakorra dogu, errez biurtzen da "e", ta Ondarroa'n "i".

Arao au argitzeko lur-irudi edo mapak artu bear doguz eskuetan: Lenengo saillean a+a aztertuko dogu, alabaa/alabea/alabia, alabie, alabii. Bigarren saillean e+a: Etxea/etxe/etxia/etxie/etxii. Irugarren i+a: Egia/egi/egie/egie. Laugarrenean o+a: Oilla/oillua/oillu. Eta bostgarrenean: u+a: Burua/burue/buru (ikusirudiak 1, 2, 3, 4, 5).

3.2. Abots bakar bi jarraian diranean.

Abots bakar bi alkartzen diranean be, geienetan sortzen dira aldakuntza eta alofonak, erreztasunagaitik naiz abotsak erabilliaz gastau egiten diralako.

/au/ dagoan lekuan /eu/ biurtzen da. Esate baterako, gaur/geur. Lege au ez da beti ta leku guztietan beteten. Mungia, Gatika ta Ondarroa dira beteten ez dabenak, oneik gaur esaten dabe. Emen ikusten da "u" itxienea dala eta "a" zabalena, orregaitik da gatxa "au" esatea.

Beste gauzatxu bat be ez da aitzu bear: "Emen dago" esan bearrean "emen dau" esaten da, gero azalduko dan galtzeagaitik, baiña "dau" ori ez da iñoz biurtzen "deu". Beti esango da "emen dau" "ikusirudi".

"lau" zenbakia esaten danean, ostera iñok ez dau biurtzen "leu". Ez dakit or zergaitik ez dan beteten lege au. Bardin esan bear "au" izen-lagun erakuslea edo demostratiboa danean,

"au" bakarti - bikore ori beste batzutan "o" biurtzen da: "esan daust" / "esan dost". Orrelan Mungia'n, Laukariz'en, Gamiz'en, Fika'n, Fruniz'en, Arrieta'n, Larrauri'n, Meñaka'n, Bakio'n eta Bermeo'n. Lenengo agertu dogun bidea artuta, "deust" entzun dot Gatika'n, Maruri'n eta Laukariz'en. Ondarroa'n, ostera aldakuntza sakonagoa da: "Esan dausta/esausta/esasta. Beste esaera baten "dautzut" agertzen da eta Gatika'n, Laukiniz'en eta Maruri'n dotz esaten dabe, eta besteetan gatzea dago: "tzut"

"au", "ori", "dauko" itzean "deko" biurtzen da erririk geienetan.


Ondarrutarrak beste aditz bat artzen dabe eta "dakar" diño.

"ea" zelan aldatzen dan mugatzailea ipiñikeran esan dogu len. Baiña itzaren barruan? Esaterako "bear"? Jokabide bardiña dauko: Mungia'n, Laukariz'en, Laukiniz'en eta Maruri'n "ber" esaten dabe, Larrauri'n eta Meñaka'n eta Bakio'n be bardin. Gamiz'en "biar", Arrieta'n "bie", Fika'n, Fruniz'en eta Bermeo'n "bi". Ondarroa'n "bir".

"oa" azaldu dogu, -a mugatzailea danean. Baiña itzaren barruan? "Goazen" zelan aldatzen da? Erri guztietan esaten da "guazen", baiña Maruri ta Gatika'n "gozan".

MUNGIALDEKO OGUZKERAK

3




ABOTS-BAKARRAK IXTEA

Mugatzaillea ipiñikerai:
euskal-berbetan:

- oa -oa** |||||
- oa -u a -u e
- oa -Qe -oo -o** ■

4



ABOTS-BAKARRAK IXTEA

Mugatzaillea ipiñikeran; ^

- u a -u e 11
- ua -ue -uu -u** ■

Itzaren barruan "ai" agertzen danean "ei" biurtzen da: "Zaitut"/"zeitut", baiña Mungia'n, Gatika'n eta Fika'n "zaitut" entzun dot.

"eo" itzaren barruan "o" biurtzen da; "egongo"/"ongo".

3.3. Abokaldi batetik bestera itxitea (metafonia).

"metafonia" deritxogun au oso zabala da euskera osoan, baiña geien Bizkaian erabilten da. Gastelerak be ba-dauko metafonia, baiña alderantziz: Euskeran "i" k eta "u" k urrengo bakartia aldatzen dabe, baiña gaztelerako lenagokoa, esaterako, Asturias aldean "verso"/"versus"/"virsu".

Arau au onelan azaldu leike: Abokaldi baten abots bakar itxi bat dagoanean (i edo u) urrengo abokaldiko abots bakarra be itxi egiten da.

Gogoratu dagiguzan lenengo erri-izen batzuk. Inon ez da esaten: "Gatika" edo "Fika", toki guztietan "Gatike", "Fike". Zergaitik ori? Aurrean "i" daukelako. Bardin jazoten da aurrean "u" dauken erri-izenetan be.

Baiña ez uste izan izenetan baiño ez dala ori jazoten, beste berba guztietan be jazoten da eta arau ori zeatz beteten dabe euskaldunek gure inguru onetan. Erderatik artutako berbetan be bai: "bonbille", "dire", "mutille", "arraiñe", "ude", "gure", eta itz batetik bestera be egiten da aldatze ori: "au da"/"au de". Gure errietan iñoz ez da esaten "bedarre", "bedarra" baiño; iñoz ez da esaten "txakurra", "txakurre" baiño.

Arau ori kontuan dala argitzen dira esalditxu oneik: "Zu te ni", "orritxu bet", "ez dire", "alegiñe", "iru te bi", "eun de bi".

4.– Abots lagunduen aldakuntzak.

Aztertu dogu abots bakarrak zelan aldatzen diran euskerearen erabilkeran. Aztertu dagiguzan orain abots lagunduak. Onein artean zazpi jokera aurkitu doguz: Abogaineratzea, iguztea, gozotzea, gogortzea, surreratzea, galtzea, antzeratzea.

4.1. Abogaiñeratzea.

Euskereak, eta batez be Bizkai'koak, jokera bizia dauka abogaiñeratzera eta emen gure inguru onetako errietan be bai, batzutan gelago beste batzutan baiño. Abots-bakarrak itxitera jotzen daben erriak, abogaiñeratzera be jokerea dauke eta jokera abi oneik itxas- ertzerantza urreratuz sakonagoak dira.

Mugatzaillea ezarten danean egiten da abogaiñeratze bat, azkenean "i" dauken berbetan: "Egia"/"egie", "ogia"/"ogie". Au egiten daben erriak egoaldekoak eta Bermeo dira (Ikusi 5n. lur-irudia).

"n" edo agin-obiko surreratua, aurrean "i" daukanean abogaiñeratu egiten da, eta ori egiten da, baita erderatik artzen diran berbetan be: "egin"/"egiñ", "kaminoa"/"kamiñoa", "minak"/"miñak", "jardina"/"jardiña".

"I" edo albotikoa dan agin-obiko dunduriduna, aurrea "i" daukanean, abogaiñeratu egiten da: "dabil"/"dabil", "mutila"/"mutilla", "oilo"/"oillo", "aprila"/"aprille", "abila"/"abilla".

"t" edo agiñetako gogorra "i" aurrean daukanean, abogaíneratu egiten da, eta batzutan "tt" emoten dau beste batzutan "tx". (Ikusi seigarren lur-irudia). "Zaitut"/"zaittut"/"zaitxut". Erri guztiak esaten dabe "zeittut", Bermeo'k izan ezik. Bermeo'n eta Ondarroa'n "zeitxut". Bardin "eiten"/"eitten"/"eitxen". Esaterako ain ugari erabilten dan "aita" izena, ez da iñon be esaten orrelan. Bermeo'rantza urreratuz Mañu'n, Larrauri'n eta Meñaka'n esaten da "aitxe", beste erri guztiak "aitte".

"s" edo agin-obiko txistularia be "i" aurean daukanean, abogaíneratu egiten da: "ekarriegizu", ekarrixu, "gaisoa"/"gaixoa", "Juanita"/"Juanitxe" (ikusi 6n. irudia).

Agiñetako abots lagundu gogor naiz gozoak, aurrean abogaíñeko bat ba'dauke, eurak be abogaíneratu egiten dira: "Ibilli dira"/"Ibiljire", "egin dot"/"injot", "egin eta gero"/"iñjegero". "d" danean "j" biurtzen da baiña "t" danean "tx".

Abogaíneratze au egiten da, baita, "l", "r" ta "n"ren ostean be, erderatik artuetan be bai: "Quincena"/"Kintzena", "falso"/"faltso", "carcel"/"kartzela".

4.2. Gogorrak gozotzea.

Abots lagundun itxi ta gogorrak bigundu egiten dira, beti "n"ren ostean eta sarritan "l" ta "r"ren ostean: "kendu", "igongo", "egongo", "ondo", "nondik", "eun ta bi"/"eun de bi", "Amar ta bi, "amar da bi".

4.3. Gogortzea.

Au len esan dogunaren alderantziz da: Aurrean "s" (edo "z") dagoanean, gozoa gogortu egiten da: "Ez dira"/"eztira", "ez gatoz"/"ezkatoz", "ez ba'da ze"/ "ezpadaze".

4.4. Surreratzea.

Agin-obiko surreratuak blde ezbardiñak artzen dauz munduko izkuntzetan, Portugaldarrak, esaterako, galdu egiten dabe, Frantze'tarrak aurreko bakartiak surreratzen dabez, eta lagundua galduta lez geratzen da. Ikusi dagigun orain euskereak zer egiten dauan abots lagundu oneri begira. Emen Mungia-inguru onetan zer egiten dauan azalduko dogu eta errez ikusiko da euskera osoak zer egiten dauan eta beste euskal-izkera batzuk zein erabilketa artzen daben.

Errien izenetan /n/ ori galdu egiten da: Laukiniz/Laukix. Fruniz/Fruix, Lemo-nizLemoiz, Gordoniz/Gordix, Gaminiz/Gamix eta leku batzuta Mungia/Mugie. Zori txarrez batzuk uste izaten dabe /n/ gaz idatzi ezkerero erdera dala, eta /n/ barik euskera, baiña argi dago bietara dirala itz euskaldunak eta jatorrak eta idazkerak "ogixe" idazten ez dogun antzera, beti "ogia" bardin idatzi bear geuke /Lemoniz/ ta ez /Lemoiz/.


Baiña guk gaur artu dogun arloa ez da zelan idatzi azaltzea, erriak /n/ orre-gaz zer egiten dauan agertzea baiño.

/ano/ /ao/ biurtzen da eta gero /o/: "Libano", "Libao", "Libo".

/ona/k /"oa"/ egiten dau: "Lemona", "Lemoa".

MUNGIALDEKO
OGUZKERAK

5




AGOGAIÑERATZEA

Mugatzailea ipiñikeran:

-ia -ie -idse ■

-ia -ie -i ▨

6



AGOGAIÑERATZEA

-it -itt ▨

-it -itt -itx ■

/ena/, toki-izenetan beintzat galdu egiten da, "Gerena"/"Gerea", "barrena"ko ostera ez dau galtzen. Toki-izenak ez diranetan be bai sarritan, jokabide au Galziarrakaz baterakoa dogula: "Arena"/"Area" Galizia'n naiz emen. Eta ez dogu aitzu bear galtze au antxiñako jokerea dauala euskereak eta latiñetik etorritako berbetan be ba-dagoala: "Catena"/"katea", "campana"/"kanpaea"/" kan pala" .

/ana/ toki izenetan galdu egiten da: "Sopelana"/"Sopela".

/ina/: emen gauza berezia da "i" aurrean eukitea eta "i" orrek agogaiñeratu egiten dau urrengo "n" eta ez da galtzen: "Filipinas"/"Filipiñe"ko, "Argentina"/"Arjentiñe", "Makina"/makiñe.

/on/: erderatik datozen berbetan galdu egiten da, baita toki-izenetan be: "leon"/"leoi", "Butron"/"Butroi".

/ion/: inguru onetan eta Bizkai osoan /iño/ biurtzen da, aurreko "i"ren indarraz, baiña Gipuzkoan "id" eta Eparaldean "ioea". "Pasiño", "pasio", "pasio-nea"

/an/: geienetan azken /n/ ori galdu egiten da "gaztan"/"gaztae" edo "gaztai", "capellan"/"kapellau", "sakristan"/"sakristau".

/en/: Ez da galtzen: "tren"/"trena".

/in/: ez da galtzen, /i/ orrek agogaiñeratu egiten daualak: "Txakolin"/"txakoliñ".

/n/: onek jokera aundia dauko galtzera berba arruntetan be. Esateko aditzetan: "edaik", "jaik", "joadi", "urteik", baiña morfema edo itz-zatia danean ez da galtzen, esaterako "amarena"/"amana".

4.5. Galtzea.

Gure izkuntzan eta izkeran, bai abots bakarrak eta bai lagundunak, eta abokaldi osoak be bai, eta abokaldi bat baiño geiago be bai iñoz, errez galtzen dira. Gaiñera jokabide au arauetara sartzea be ez da gauza arreza. Dana dala, erriaren esaerak aurrean doguzala, aleginduko naz olako zerbait egiten.

Bakarti-artean dago /g/ geienetan galtzen da: "nago"/"nao"/"nau"; "dagoz"/"dauz". "Egongo"/"eongo"/"ongo", "erosiko dou"/"erosiko dou"/"erosiko du"/"erosiku", "egindo zu"/"eingodo zu"/"eingo zu", "egin"/"eiñ"/"iñ", "dagi-zun"/"daizun"/"deixun", "Gagoz"/"gauz", "lenago"/"lenau".

/dau/ eta /da/ aditzik geienetan' galtzen dira: "badatoz"/"bator", "ikusit dot"/"ikusitot", "kendu dautsat"/"kend Utzet", "ikusit ditue"/"ikusitue", "erosiko dogu"/"erosiku", "ba'dozu"/"bozu", "ean dautzut"/"esantzut".

k azkenekoa galtzeko oiturea antziñakoa da Bizkaian, gitxienez erdi-arotik dator. "etzetik"/"etzeti".

4.6. Antzeratzea.

Abots bakarren antzeratzea ez da asko ikusten Mungialde'ko errietan, Bermeo'n bai geiago.

"ikusit"/"ukus" entzun dogu Gamiz'en eta Fika'n, "egongo"/"ogongo"/"ongo" entzuten da Mungia'n beintzat. Bermeo'n "emon"/"omon", "etorri"/"otorri". Askuek antzerako jokera bat agertzen dau Erronkariko euskalkian.

Abots lagundunak antzeratzea zabalago dabil erri guztietan. Berba bat /n/ gaz asten danean, aurreko /z/ be /n/ biurtzen da. "Ez nago"/"enago"/"enau", "ez noa"/"enoa"/"enue"/"enu".

Berba /l/ gaz asten danean aurreko /z/ be /l/ biurtzen da, "ez leuke"/ "eleu-ke" eta antzera /z/ gaz asten danean be: "ez zan"/ "ezan".

5. Azterketea

Itzaldi au naikoa luzea izan dala, eta bear ba'da gogaikarria be bai, dana amaitzeko Bermeo'ko izkeratik artua dan idatz zatitxu bat aztertuko dogu. Ortuzar'tar Robustiano'ren Oroiga iak deritxon liburutik artua da. Liburu au Bermeo'ko izkerea agertzen alegintzen da, baiña beti ez dau lortzen, Idazlea landua izanik, noizean bein belarria ikusten jakolako. Itz-Aurrea Azkue'k egiña da.

"etxako kose ainbeste guteten. Gurau dotsu arek mariñu bategaz ezkondu. Lapurtxuenekuegaz ein deu domekan yantzaldi bat... da ilusiñoz beterik dako zu.

Aregaz ez pentzetie deko. Mobidxie dako arek kanpoko erridxen.

Etxako: "Ez jako", aurreko /z/k/dx/ biguna gogortu egin dau "ez da"/"ez ta"/"ez da" lez.

Kose: Itzaldi onetan agertu ez dogu aldakuntza bat dago emen: Izki iguziak /f/ ta "j" ez dabez gogoko gure euskalduna orregaitik "Jose"/"kose" edo "Fika"/"Pike".

Gurau: "gurago" k bakarti-arteko /g/ gozoa galdu egin dau.

Dotzu: "Dautzu"ren "au" emen "o" biurtu da. Mungialdean "deutzu" be esaten da.

Mariñu: Emen /i/ren indarra ikusten da eta /n/ galdu barik agogaiñeratu egin dau.

Lapurtxuenekuegaz: "Txua"/"txue", orrelan Mungialde guztian be. Baiña "koa" esango litzake Mungialde osoan. "kue" Bermeo'koa da eta Mungialdean erderatik oraintsu artutako berbetan egiten da ori "banco"/"bankue", "baso"/"basue", baiña ez antxiña artutakoetan: "camino"/"kaminoa" edo berba euskaldunetan: "beso"/"besoa".

Eiñ: Galtzea dago or -g- galdu da, eta azkenenکو -n, "i"ren indarras /ñ/ biurtu da.

Deu: Izatez dau zan, baiña aurrean /ñ/ dagoalako, ondorengo /d/ agogaiñeratu egin da eta "d"/"ds" biurtu. "Au" be "eu" biurtu da, arauetan esan dogun lez.

Bat: Emen bermeotarrak "bet esango leukee. Bear da Ortuzar'ek jakituriaik egin dau aldakuntza ori, "kultismoa" da. Zergaitik? Aurrean /u/ daukalako.

Ilusiñoz: Erderazko "ilusion", baiña /i/ren indarra dagoalako, /n/ ez da galdu, /ñ/ biurtu baiño. Ikusi arauetan esan dana: pasiño, pasio, pasionea...

Pentsatie: azkeneko /ea/ emen /ie/ biurtu da.

Deko: "dauko"/"deuko"/"deko".

Nobidsie: Erderatik artzen diran itzetan, azkeneko /a/ mugatzaille lez artzen da, orregaitik esan lei itzaren azkena /i/ dala eta mugatzaillea jarten danean, Bermeo'tarrak agogaiñeko gozoa sartzan dabe or /ds/. Mungialderik erdi

be antzera. Orrelan esango leukee Arrieta'n eta Larrauri'n, Mungia'n ostera "nobie" eta Maruri'n "nobi".

Dako: len "deko" agertu da, beti ez dira arauak ziur beteten. Mungialdean "deko" litzake, baiña Bermeo'n "dako" be entzuten da.

Erridsen: azkeneko /i/ren araua betetea. "nobidse" lez.

Azkena

Eldu gara, Jaun-Andreok, itzaldi luze onen azkenera.

Zalantza barik gaia luzeegia izan da itzaldi baterako. Txalogarria da zuen eroapena!

Zer atera geinke arau guzti oneitatik?

Euskerea ondo ezagutzeko, euskaldunakaz egin bear dala berba. Gramatike-tan ez dagoan jakituria dauka erriak. Gramatikako arauak jakiteko erriari itaundu bear jako eta ez bestetara, gramatikea egin eta erria beartu arau orreitera.

Gure euskaldunak, kikilduta daukaguz. Ara zer esaten daben guztiak: "Guk txarto egiten dogu berba", zeuk arteztuko dozuz gure okerrak". Eta pentsaera bildurti au asko nagusitu da gure etxeetako umeak euskera batua ikasi dabenean: Umeak uste dabe eurak dakiela euskeraz berba egiten eta gurasoak ez dakiela, gitxiago aitita-amamak. Eta ori sinistuta dagoz gurasoak eta gurasoen gurasoak. Tamalgarria!

Emen aztertu doguzan arauai guk ez dautsegu garrantzirik emoten, baiña erbestetik datozen izkuntzalariak emen daukagun aberastasun au ikusten dabenean arrituta geratzen dira. Arazo au aztertzeke erabagia ba-dakizue noiz artu neban? Deustu'ko Ikastetxe Nagusian Olandako bateri berbaldi bat entzun neutsanean, berak arazo oneik Ondarroa'ko euskeran zelan beteten diran aztertu eban.

Beste ondoren asko be atera leikez itzaldi onetatik, baiña zuek orretarako almena ba-daukazue. Eskerrik asko!

MAPAK

1

ABOTS-BAKARRAK IXTEA:

ZEINTZALLEA IPIÑIKERAN:

LENENGO LEGEA: -aa -aa -ae -é:

aa -aa -ia -ie -ii í:

ea -é -ia -ie

2

ABOTS-BAKARRAK IXTEA:

Zeintzallea ipiñikeran:

ie í íje

3

Zeintzallea ipiñikeran:

Laugarren legiea:

Euskal-berbetan -oa > -oa:

oa > -ua > -ue:

oa > -oe > -oo > ó

4

Zeintzallea ipiñikeran:

Laugarren legea: -ua > -ua

ua > -ue > -uu > ú:

5

AGOGAIÑERATZEA:

Zeintzallea ipiñikeran:

Agogaiñerutzen dabe (idije):

Ez dabe agogaiñerutzen: (idie, idi):

6

AGOGAIÑERATZEA: it > it, aite:

it > it > itx > aitxe:

EUSKERAZAINTZA

Euskerazaintza, euskerazaintza,
zorieko lorea,
eusko izkuntza zaindutearren
agerturiko taldea;
gure izkuntza ezpaitan egon,
neke samiñez betea,
orra semeak eta alabak
zaintzen zure bizitzea.

Zure bitxiak agertzen datar
Olazarreko semea,
ain zara eder, ain aberatsa.
izkuntza ezin ohea;
aurrera Martin, batu ta landu
euskeraren arnasea,
bedeinkatua izan dedilla
euskaldunen lurraldea.

Munduak mundu dirauanarte
iraun daijala euskerak,
bere semeak izan daiezan
sortzetiko jas garbiak;
itzez ederra, zentzunez aundi,
joskerak zoragarriak,
euzko lur onek merezidu dauz
Euskerazaintzaren lanak.

Lendakaria zara zu, Martin,
tegi onen izenean,
jaurbide legez, jokatu gogor
euskeraren omenean;
izkuntz eder bat, senda ta garbi
izan dagigun lurrean,
izarrak legez argi egiten
euzkotarren batzarrean.

**Euzkotar seme eta alaba,
dei dagitzue izkuntzak,
agure arbaso aintzagarriak
sortu eben arnas otsak;
ekin ta jarrai al dan ardan
indartzen Aitorren itzak,
erri jator ta izkuntz eder bat
izan daizan euskotarrak.**

Paulin

(Itzaldiko atsedenalda abestutako bertsuak)

ONGI ETORRI

Egun ontako alkartasuna
zer dan nai dot jakitia,
izkuntz eder au sortu ebenen
arbasoen irudia;
baso ta mendi ibili ziran
sortuz euren izkuntzia,
andre ta gizon euzkotar arek
doguz bizitz oiñarria.


**Begira nago ikusi nairik
gure asaben sustraia,**
buru argidun, biotz sendodun
giza talde leiñargia;
berezko legez, alan bear ta
sortuz Euzkadi maitia,
erentzi on bat itzi euskuen
zelai orlegiz jantzia...

**Baiña danetan ederrena da
izkuntza urrez jantzirik,**
irudia ta jakituria
beragaz dituelarik;
euren erako, euren gisako
eginik oso osorik,
munduan diran elertilari
asko daukaz arriturik.

Bene benetan, aldi artako
Aitorren seme argiak,
ez euken naste barregarririk
buruak argiz beterik;
izadiaren edertasunez
dizdiz eukezan begiak,
larros orriak zirudiela
euren itz zoragarriak.

Euzko leialak, ongi etorri,
arbaso zelai ontara,
euzkoen izkuntz zoragarria
abegiz gozartutera;
geuria da-ta, izkuntz garbia
eguzki erreñitara,
euskaldun jator izan gaitezen
arbasoen argitara.

PAULIN



OLAZAR'TAR MARTIN JAUNAREN ITZALDIAR1 ERANTZUNA

Pozik damaiot erantzuna, Martin, zure itzaldi eder orri gure Akademiaren izenean.

Lan aundia, lan sakona, neke aundiz ernaldutako lana egin dozu, Mungialdeko euskal-aboskerari buruz, eta, oitura duzun lez, era egokian, era argian eta, gai oietara jarririk ez gaudenontzako ere, era ulerterrezean eman diguzu zure lan bikain orren berri.

Euskerazaintza deritzan Euskal-Akademira lendakari lez sartzeko osotu duzu gaurko itzaldi oparo eta mardul au. Eta benetan dasaizut Martin, pozez betatako entzuleak izan gaituzula euskerazaiñok zure jardun-aldi luze auzear, zoriontsu gerala une ontan, eta Akademia bera, zutzaz, Martin, arrotasun garbiz, arrotasun santuz, beterik aurkitzen dala.

Arro zegoan len ere, berea zuan lendakariz. Izan ere, Akesolo'tar Lino bere lendakaria izana, bai bait zan edozein Jakintza-Bazkun arro sentierazteko gizona. Txit idazle bikaiña izateaz gaiñera. , elerti-jakintzen arloan, euskal-elertia gaur-egun arte ez bait du iñork ark ezagutzen zuan bezain ederki ezagutu.

Orrelako gizonak egiten dute ospetsu edozein Akademi. Ez da beraz arritzekoa, gure Akademi au, bere lendakari ark ematen zion ospe dizdiratsuz bere burua jantzirik ikustean, ain zoriontsu eta arrotasun zintzo eta legezkoz beterik ibilli izatea.

Joan zitzaigun ordea Akesolo gure lendakaria, eta orduan, akademilari guztion autarkiz, zu izan ziñan, Martin, Euskerazaintza Akademiaren Lendakari autatua. Eta gaurko zure sarrerako itzaldi naro onen bidez, ederki adierazi diguzu, ez giñala euskerazaiñok zu aukeratzekoan oker ibilli. Zorionak zuri, Martin, eta zorionak Euskerazaintza Akademiari, Akesolo'ren atzetik, lendakaritzarako zu bezalako gizon erne jakintsu bat bere altzoan izateko zori on ederra izan dualako.

Akademia sortu genduan egun beretik izan zera zu, Martin, Euskerazaintza Akademiaren euskerazaiñik langilleneenetako bat.

Orregaitik, gaurko itzaldi au ez duzu Akademira sartzeko egin, naiz orixe izan zure asmoa, lan au asi zenduanean. Azkenean, Martin, Akademiaren Lendakaritzara sartzeko gertatu bait zaizu egiña.

Ta, lan orren bitartez, bide ederra iriki duzu, zure atzetik, gu baiño ikerketalarí gaztegoek, gure Eusko-Unibertsitatetik irtetzen zaizkigun jakintsu berriek, euskal-fonetika, eta euskal-fonologia aztertzer eta jasotzer jo dezaten.

Fonologia, Martin, fonetikaren atal bat bezala ematen dute nik, gai oniburuz, egun auetan erabilli ditudan idaztiek. Eta ez da gaur-goizean asitako ekintza, oso zarra baizik, zuk erabilli duzun gaiaren azterketa, ots, fonetikarazoen ikerketa.

Krist'aurretik, sanskritarren izkuntziztilariak izan ornen ziran ba, eginkizun ori urrutiko Indi miresgarri artan asi zutenak. Eta Krist'aurreko sanskritarren artean abotsiztiaren jakintza ori bee gaillurrera jaso zuana. Azterlari zaar aien lanak eraman ornen zuan gizadia, Ejito'ko jeroglifikoen antzeko gogai-idazkerara utzita, aneika aldiz errezagoa eta egokiagoa dan alfabet-idazkerara. Ta Feniziarrek izan ornen ziran, geroago, gure kulturazko mundu ontara idazkerari ori ekarri zutenak. Ez da arritzekoa. Salerosketatik bizi ziran itxas-gizon trebe aiek Krist-aurretiko mendeetan Indi'ko jendeekin arremanak izan bait zituzten.

Dana dala, gure kulturazko mundu ontan izan zuten Indi'ko abotsiztilari zaar aiek jarraillu bikaiñik aski: Ipokrates, eta Aristoteles adibidez Grezi zarrean, eta Galeno erromatarren artean. Benetan saiatu ornen ziran ba, itz batek bere baitan daramazkian ago-otsak eta agoaren barruan ots oiek nola sortzen diran jakin nairik. Eta, Birjaiotzakoan, -nola ez?-, Vinci'ko Leonardo berak jarraitu ornen zuan aien urratsen atzetik.

Baiñan XVII eta XVIII mendeak arte, ez ornen zan abotsiztia egiazko jakintza billakatu. Ala, 1791'ean Wolfrang von Kempelen doistarrak asmatu ornen zuan, abotsak edo abotsen antzeko ots batzuk sortzen zituan langaillu bat: Eta ia eun urte geroago, 1881'en beste doistar batek, Eduard Sievers'ek idatzi ornen zuan jakintza orren oiñarrizko idazkia: Grundzügender Phonetic": "Abotsiztiaren Oiñarriak".

Baiñan zure aurreko ikerlariak ez baiña zure ondorean etorri daitezkeanak zaizkigu batez ere arduragarriak, gure euskera gaixoa ain era larrian aurkitzen zaigun une mingarri latz ontan. Zuk asi duzun lan eder au, berealaxe jarraitzen ez ba'dugu, emendik urte gutxi batzuetara, lan ori egiterik ez bait dugu izango. Orregaitik da ain garrantzi aundiko lana, Manu Oñatibia'tarrak eskatuta, euskerazain danok egitea erabaki genduan ekintza: magnetofoiaren bidez gure aiton-amonen izkeraren doiñua len-bait-len jasotzen astea, alegia. Belaunalditik belaunaldira aldatzen da izkuntzen doiñua, gure izkuntzaren doiñua batez ere, aranetik aranera, erriskatik erriskara, txokotik txokora ain era bereizikoa dan gure izkuntzaren doiñua.

Ez dakigu, nolakoa zan orain berreun, zazpireun, milla, bi milla edo lau milla urte, gure euskeraren doiñua.

Uste al duzu, On Joxe Migel, edesti-aurreko solutrear eta magdalear aroetan gure leiza-zuloak margoztu zituzten kromañondar aiek euskeraz mintzatzan ziranik?

Bai, -erantzun ziran-. Euskeraz mintzatzan ziran, naiz guk, ziurki, aien izketarik ulertu ez. Alare, oartuko giñake euskeraz mintzatzan zitzaizkigula.

Arrazoi zuan. Ez giñake aien euskerarik ulertzeko gauza izango. Eta ez, soilki, orduango itz asko galduak, eta gaurko itz asko orduan oraindik sortugabeak izango lirakelako, baizik eta, aien ezpainenetan euskeraren doiñua gure belarrientzat arras ezberdiña eta adikaitza gertatuko litzaigukelako bereiziki.

Badu gure laister-ibilli-bearrak beste arrazoi bat ere gure aiton-amonak luzaro ez digutela iraungo gogoan artzeaz gaiñera: Gaur-egungo gizartemezu-bideek, irratiak eta telebistak, baztar guztietara sartuz, euskeraren agoskera aldatzen ari zaizkigula alegia, eta ez zoritxarrez onerako. Gure euskera gazteleraren soiñu arrotzez kutsatzen ari bait zaizkigu, erarik lotsagarrienan.

Ortik, magnetofonia-bitarte gure Akademiak egitea erabaki duan lana atzeratu-eziñaren garrantzi larria. Gu bakarrik, ordea, ez gera lan eder ori aurrera ateratzeko gauza. Lagunak bear ditugu, lagunak ugari, danon artean bai, ederki burutu bait dezakegu arras garrantzitsua izateaz gainera ain polita iduritzen zaigun eginkizun ori.

Eta bada orren antzeko eginkizun ederrik aski gure euskeraren arloan: adibidez, landare eta zomorroen izenen bilketa datorkit orain gogora. Belar bakoitzak, a belar bakoitzaren zati bakoitzak eta gure mendi-lur-ibai-itxasoetako pizti eta moxorro guztiek badute beren izena. Izen oiek ez dituzu iztegietan aurkituko, oso txiroak bait dira gai orri-buruz gure iztegi guztiak. Izen oiek gure aiton-amonen ezpainenetan daude gorderik. Ezpain oiek ordea, urte-tik urtera ari zaizkigu, eriotzaren eraginez isilik gelditzen. Urtero, aneika dira galtzen zaizkigun itzak. Eta oso laister, danak izango dira, galdurik geldituko zaizkigunak.

Ta, itz oiek bildu gabe berriz, alperrik izango dira gure abizen eta tokiizenen etimologia argitzeko egin dezakegun saiaketa guztiak. Gure buruak atzipetzeko bakarrik balioko digute. Itz oiek ezagutzeke, ez bait dago etimologintzara sartze utsa pentsatzerik ere.

Baiñan bilketa ortarako ere, bearrezkoa dugu euskera maite dutenen laguntza.

Lortuko ote dugu ordea, orrelako laguntzarik? Ez dut itxaropen aundirik. Galtzen ari zaigun gipuzkerazko ika gordenaiean asi giñanean ere, gogoan daukat zenbati idatzi nion eta zeinhen gutxik erantzun zidaten. Berrogei ta amabosti idatzi; lauek bakarrik lanerako gerturik erantzun.

Alperrak gera euskaldunok gure izkuntzaren alde lan egiteko. Atzerritarrei eta atzerritarren lege eta ekintzei jaurti oi diegu gure izkuntza aurkitzen dan egoera negargarriaren errua. Baiñan ori egitean, gezurretan ibiltzeaz gainera, gure burua zuritu nai dugu gezurketa orren bidez. Gezurra ordea, gezurra da beti. Gure izkuntzak eraso-aldi gogorak izan ditu atzerritarren aldetik. Baiñan milla aldiz eriogarriagoa gertatu zaio, eta gertatzen zaio, etxeko euskaldunen axolagabekeria.

Izkuntza bat ez dute sekulan atzerritarrek iltzen, etxekoek nai ez ba'dute. Itzegin ere itzegin nai al dute euskaldunek euskeraz? Izkuntza bat ordea, soilki, izkuntza ori dakitenek erabiltzen ez dutelako iltzen da; ez, izkuntza ori ez dakitenek ikasten ez dutelako.

Ea ba, Martin, zure eta zu zuzendari zaituan Akademiaren oiuek gure euskaldunak beren lozorrotik ateratzen dituzten.

Zuk beintzat, egin duzu lan ederrik. Eskerrak zuri, Martin, Akademiaren izenean. Eskerrak, emen gauden guztion izenean, euskera maite duten euskaldun danen izenean, eta, baita, euskera beraren izenean ere.

Zillegi bezait nere izketa baldar au bertso baten bidez amaitzea.

Gure erria izen ederrez
Euskalerria deritza,
ta Euskalerria euskalduntzeko
danok lanean gabiltza.
Ai gure poza Euskera ba'litz
Euskoatar danon izkuntza.

Ostera berriz Euzkadi dana
Euskalerrria balitza.

Latiegi'tar Bixente

GAURKO JAIARI

Gaurko jalad omenaldia
gaurko lanari zoria,
gure izkuntzak merezidu dau
orrenbesteko zoria;
tiriki tiki tiriki tauka
mailluaren ots zolia,
gure izkuntzak artu daiala
Euskalerrri lur guztia.

Gaurko batzar au zoragarria
izan da gure artian,
euskaldunak dau bere sen gatzia
itz egiten dabenian;
batean diño ene semia
biotzaren barrenian,
bestean diño ene semea
oituraren izenian.

Gaurko ekintzak bultzatzen gaitu
buru biotzez lanera,
gure izkuntza zabaldu dedin
zelaietatik urira;
egiz, eder da ibar alde au
euskeraren solasera,
Euzkadi oro eder izango
euzkoen izkuntz erara.

Ezin dot astu, ezin dot itzi,
iñola esan bagarik
erri au sortu eben jendeak
artistak ziran barnetik;
biotza dardar, burua dizdiz,
izan ebezan sortzetik,
izkuntz argia, bardin bagea
atareaz odoletik.

Gizontasuna da euzko lore
uri, baso, mendietan,
euzko jatorra dagon tokian
izar bat dago goietan;
zeru altutik ba-letor legez
argi dagi batzarretan,
bere berbea, lotsaz, artzen da
munduko legedietan.

PAULIN

ERRI-EUSKERA ZAINZEN ETA INDARTZEN

Euskerazaintza, Euskeraren Erri-Akademiak, gaur bizi diran euskaldun jatorrak egiten dabena euskerea zaintzeko ta indartzeko ekintza berezi bat artu dau: Euskera jator ori kasetetan artu eta gero idazkiz aztertzeko ekintza.

Ekintza orren barruan lana egiten aleginduko dira euskerazaiñak eta orretan izan daitekezan eraketak eta lanak Euskerazaintzak ordainduko dauz.

Ekintza onek lan bakoitzean urrats bi ondo bereziak ditu: Kasetetan erri-euskerea artzea eta geroko azterketa idatzia.

1.-EUSKERA KASETETAN ARTZEA

1.1. Noren euskerea:

- Bere bizitzan euskeraz berba egiten dauana.
- Euskerari buruz ikasketa sakonik egin ez dauana.
- Adiñez eldua.
- Zarra ba'litz, izkera argia eta ulertzeko lakoa.

1.2. Zer eta zelan artu:

- Gizon edo andra orregaz berba egin lenago, esan zer egin naitogun eta zertarako dan.
- Jakin berarentzat gai bizia zein dan: Gudako gomutakiak, edo baserriko arazoak, edo sendiko goraberak edo auzo arazoak...
- Magnetofonia iziotu eta berari galdera zabal bat egin, esaterako: Zer egin zenduen zuk eta zure etxeak guda eldu zanean? Edo, zelan doaz gaur baserriko (naiz arrantzako) arazoak?
- Berak egin dagiala itz, norberak al danik gitxien, laguntzeko baiño ez.
- Alkar-izketa ori ordu-erdikoa izan daitela, gitxienez.

(Kanpoko orrian jarraitzen du)

ERRI-EUSKERA ZAINTZE ETA INDARTZEN

(Barruko orrialdetik dator)

2.-ARTUTAKO EUSKERA AZTERTZEA

Galdera onej erantzun eta beste gaj batzuk be agertu nai izan ezkeru.

- 2.1. Ñongo euskalkia darabil? Agertu ori baiezteko adibide batzuk: Bizkaikoa da, "dot" aditza darabilrelako edo gipuzkoera da "dizkit" agertzen dalako.
- 2.2. Euskalki orren barruan, zein errialdetako izkera da? Esan zeintzuk diran ori agertzen daben berezitasunak, esaterako Arratia'koa da "ogie" esaten daualako, edo Elorrio'koa "ogixa"...
- 2.3. Esan zeintzuk diran erderatik oraintsu artutako berbak eta erri-euskeran ori esateko itzik dagoan. Esaterako "libertadea" esan dau, baiña erriak "askatasuna" be esaten dau.
- 2.4. Aztetu atzizkiak. Esaterako "salbagillea" diño, baiña gramatikaz "salbatzaillea" izan bear leuke.
- 2.5. Ikus joskera okerrik iñoz darabilen eta zuzendu errazoz; tuz. Esaterako "etorri zan etxera" diño, baiña "etxera etorri zan" esan bear leuke, galdegaia "nora" dalako.
- 2.6. Aztetu oguzkera edo abotsak eta esan izkereagaz dauken zerikusia: "alabie", "etxia", "burue", "kamiñoa"...
- 2.7. Aztetu aditz-erak zelan darabiltzan: "Igon dot" "Atzo Bilbo'n ikusi tzut".
- 2.8. Ika-jokoa erabiltea ba'litz, aztetu ezaugarriak.
- 2.9. Doiñu-aldetik zer esanik ba'dago esan.
- 2.10. Idatzi nai dozuzan oarrak eta esan zerk arritzen zaituan geien izkera orretan.

Oharra: Azterketa au egiteko bein eta barriro entzun bear da kaseta eta entzunez, bitxikeri guztiak idatzi, galderak konturako dirala.